



**Korrika** - Maritxu Ugarte eta Nieves Aranoa Durangaldeko AEK-ko aitzindarietarik bi dira. Herritarrak euskaraz alfabetatzeko lanari ekin zioten, dena egiteko zegoen garai batean. Korrikak bigarrenz bisitatuko du Durangaldea, gaur. Zornotzan sartuko da, 17:30 aldera, eta Otxandiotik agurtuko da, 00:30 inguruan. • **13-16**

## AEK-ko aitzindari, dena egiteko zegoen garaian

### Uko egin diote Correoseko eraikin zaharra birgaitzeko diru laguntzari

**Durango** • Durangoko gobernu taldeak uko egin dio Espainiako gobernutik heltzekoa zen 1,5 milioi euroko diru laguntzari, Correoseko eraikin zaharrean kultur etxea egiteko baldintzak eta epeak betetzea "ezinezkoa delako". Eraikina botatzeko eta kultur etxea Pinondo Etxean sortzeko aukera mahaigaineratu dute. • **5**



### M31ko bonbardaketetako biktimen zerrenda gaurkotu dute



**Memoria historikoa** • 1937ko Martxoaren 31n Durangoko bonbardaketan hildakoen zerrenda azertu eta gaurkotu du Jimi Jimenez historialariak. Jon Irazabalek 2001ean eginiko zerrenda oinarri hartuta, hildakoak 213 izan zirela ondorioztatu du, eta ez 334 orain arte uste zen moduan. Gerediaga eta Durango 1936 elkarteek egin dute ikerketa, udalaren babesagaz eta Gogoraren diru laguntzagaz. Ikerketak hiru urte iraun du. • **2-3**

## “Garrantzitsuena da txosten honek ez dezala izaera politikorik izan edo ez dadila interes politiko bategaz erabilia izan”

Gerediagak eta Durango 1936 elkarteak, udalaren babesagaz eta Gogoraren diru laguntzagaz, M31ko bonbardaketetan hildakoak identifikatu dituzte. Zerrendaturiko biktimen azterketaren arabera, hildakoak 213 izan ziren, eta ez 334

M31 • JONE GUENETXEA

**Martxoaren 31n Durangoko bonbardaketak gertatu eta 87 urtera, datu berriak atera dira argitara. Jimi Jimenez historialari durangarrak hiru urtean zehar egindako ikerketak biktimen identifikazioan aurrerapausoak eman ditu. Hilerriko hobi komuneko azterketatik abiatuta, bonbardaketetan hildakoen zerrenda gaurkotu du.**

**Zein testuingurutan egin duzue ikerketa?**

Ikerketa hiru fasetan egin dugu. Lehenengo fasean, hobi komunetan, bonbardaketan hildako pertsonen harira egin genuen ikerketa. 84 pertsona horiek identifikatu eta familiekin hartu-emanen jartzea zen helburua. Momentu hartan ikusi genuen azterketa sakonago bat egiteko beharrezko zegoela, pertsona hauengandik haratago. Kontuan izan behar da Durangoko hilerrian 127 pertsona hobiratu zirela. 84 hobi komunetan, eta 43 ehorzleku eta panteoietan, besteak beste. Ikusi genuen ikerketa zabaldu beharra zegoela, Zornotzan, Bilbon eta ospitaleetan hil zirenak gehituta. Bonbardaketan zauritu ziren pertsonak, baina geroago beste leku batzuetako ospitaleetara eramane zituztenak.

**Abadiñoko biktimak zerrendan mantentzea erabaki genuen, bonbardaketak ez duelako herrien arteko mugarik errespetatzen**

**Jon Irazabalek eginiko zerrenda hartu duzue oinarri.**

Bai, Jon Irazabalek 2001ean egindako ikerketan, bonbardaketako 334 biktima zenbatu zituen hainbat erregistrotan oinarrituta.

**Ikerketa hau zelán gauzatu duzu?**

Kontuan izan behar da bonbarda-

ketan hildako pertsonen artean asko kanpokoak zirela; gipuzkoarrrak, esate baterako. Horregaitik, leku horietako artxiboak kontsultatu behar izan dira. Gainera, gudari kopuru handi bat zegoen eta horiek lokalizatzeko beste iturri batzuk aztertu behar dira: batailoien nominak, esate baterako. Durangon zeuden unitate militarrei buruzko informazioa aztertu behar izan da.

**Deigarria da biktima kopurua. Jon Irazabalek eginiko hasierako zerrendatik aldaketa asko egin da.**

Jende asko, hasieratik zerrenda ofizialetan eta prentsan agertu zena, beste egoera batzuetan hil zen. Ez ziren zuzenean bonbardaketaren ondorioz hil. Beste bonbardaketa batzuetan edo frontean hil ziren; Aramaioko eta Otxandioko frontean, esate baterako. Otxandioko trintxeretan zeuden batailoikoak ezin izan ziren hemen hil. Kontuan izan behar da martxoaren 31koak ez zuela Durangon bakarrik izan eragina. Elorrioko, Elgetako eta Otxandioko frontean ere izan zuen eragina. Gerraren eraginez hil arren, ez ziren bonbardaketako biktimak. Ez duguna eztabaidatuko da intenzionalitate zegoen zerrenda handitzeko, edo transkripzio akats bat izan zen, edo momentuko kaosaren eragina.

**Zenbaketara itzulita, ikerketa honetan zerrendatik atera den hainbat pertsona dago, baina batzuk, zerrendan orain arte egon ez direnak, bonbardaketaren biktima modura sailkatu dituzue.**

Bai, ikerketan zehar 16 pertsona azterketara batu dira. Beste 13 identifikatu barik daude, izenik barik daudenez ezin delako jakin nortzuk diren. Azken hauek Jon Irazabalen zerrendan ere agertzen dira.

**Abadiñoko bonbardaketan hildako lau pertsona ere zerrendan daude.**

Irazabalen zerrendan ere bazeuden. Gai honek zalantza planteatu zigun ikerketan. Mantentzea era-



**Jimi Jiménez Jiménez**  
Historialaria  
**DURANGO | 1965**

baki genuen, bonbardaketak ez duelako herrien arteko mugarik errespetatzen. Kontuan izan behar da Durangoko bonbardaketa Matienan hasi zela. Biktima batzuk Traña-Matienako baserrietan hil ziren, euren etxeetan. Argi duguna da martxoaren 31 hartan eskuadrilla italiar bi banatu egin zirela. Bata Durangora etorri zen, eta bestea Elorriora. Beraz, Abadiñoko lau biktimak Durangora etorritako eskuadrillaren erasoaren eraginez hil ziren.

**Hiru urtean eginiko lanaren ondoren, ikertzen jarraitzeko beharrezkoak azpimarratu duzue. Zer geratzen da aztertzeko?**

Asko geratzen da ikertzeko, zentzu askotan. Esate baterako, nortzuk dira identifikatu barik dauden 13 pertsona horiek? Abadiñon abiatzen den bonbardaketaren hasiera horretako biktimak lau dira ala ezagutzen ez dugun biktima gehiago dago? Horregaitik, ikerketa Aba-

diñon egitea beharrezkoa da. Adibidez, Elorrioko bonbardaketako bost biktima Durangokoaren zerrendan agertzen ziren. Durango eta Elorrio agente diferenteen erasoaren ondorioz bonbardatu zirela aztertu eta gero konturatu ginen horretaz.

**Gaurkoturiko zerrenda honetan agertzen diren biktimen %74 zibilak izan ziren. Zure ustez, erasoak zein helburu izan zuten?**

Zibilen kontrako erasoak izateaz gainera, Durango geografikoki estrategikoa zen. Tropak frontera eramateko bidea zuen. Trenbide linea zuen frontean hornitzeko. Gainera, Durangaldean gudarien populazio handia zegoen. Durangon 8 kuarter zeuden, eta lau-bost Elorrioren. Unitate militar ugari zegoen frankistek frontean aurrera egin ez zezaten.

**Deigarria da 87 urte pasatu eta gero oraindik ez dakigula Durangon eta inguruetan zehatz-zehatz zer gertatu zen. Zer pentsatu ematen du.**

Dena isiltasunera mugatzen dela esango nuke. Lehenengo urteetan ezin zen esan faxistek egin zutela bonbardaketa, hauek ez zutelako egiletza onartzen. Eta eraso gorriari, asturiarrei zein errepublikarrei egozten zieten. Honi gehituko nioke bonbardaketak zibilei eragiten dien momentuan ezin dela bereiztu ez erlijiorik ez ideologia politikorik. Honek guzti honek isiltasun itzelagaz estali du gaia. Familiek bazkari batean komentatzen zuten gaia zen, baina ez zeuden prest elkarrizketak emateko. Jon Irazabalek bere azterketan izan zuen zailtasunetariko bat horixe izan zen. Kostatu egin zitzaion lekukotzak aurkitzea.

**Eta hemendik aurrera zer?**

Garrantzitsuena da txosten honek ez dezala izaera politikorik izan edo ez dadila interes politiko bategaz erabilia izan. Hartara, jendeak lasaiago berba egingo du gai honetaz.

# Gazako eta Ukrainako biktimek parte hartuko dute Durangon antolatuko dituzten Martxoaren 31ko omenaldietan

Bonbardaketaren 87. urteurrenean, udalak ekitaldi instituzionala berreskuratu du, Benita Uribarena parkean, 10:00etan

## DURANGO • EKAITZ HERRERA

Martxoaren 31n 87 urte beteko dira Italiako abiazio faxistak, Espainiako gobernu frankistaren bitartekaritzagaz, Durango eta Elorrio bonbardatu zituenetik. Aurten ere data ilun hori ahanzturan geratu ez dadin, Gerediaga elkarteak eta Durangoko Udalak hainbat oroimen ekitaldi antolatu dute. Azken honek orain lau urtera arte egiten zuen ekitaldi instituzionala berreskuratu du. Bertan, Durangoko, Gernikako, Ukrainako eta Gazako bonbardaketetako biktimak egongo dira, "elkartasun keinu" modura. Ekitaldia Martxoaren 31n bertan egingo dute, Benita Uribarena parkean. 10:00etan izango da. "Bonbardaketatik hamarkadak igaro diren arren, haren minak eta oroitzapenak durangarren oroimenean jarraitzen du", adierazi zuen egitarauaren aurkezpenean Mireia Elkoroiribe alkateak. "Beldurrak, interesak, lotsak eta minak tarteko, bonbardaketa isilarazia, lurpera-

tua, izan zen. Ezin dugu memoria ahaztu. Biktimei errekonozimendua ukatu zitzaien, eta belaualdi berriek egia jakin behar dute", gaineratu zuen.

Gerediaga elkarteak eta Kriskitin elkarteak Andra Mariko elizpean egingo dute oroimen ekitaldia, urtero legez. Goiatz Pelaez elkarteko kideak ekitaldira joatera deitu ditu herritarrek. 19:30ean izango da.

## Lore eskaintza egingo dute Elorrian

1937ko martxoaren 31n gerra hegazkinek Elorrio ere bonbardatu zuten. Aire eraso horren ondorioz, zazpi lagun hil ziren. Gertakari lazarri hura gogoratzeko, lore eskaintza egingo dute, 12:00etan, monolitoan, Laumunarrieta elkarteak antolatuta.



Durangon prentsaurrekoa egin zuten Martxoaren 31 gogoratzeko antolaturiko egitaraua ezagutarazteko.

MARTXOAK 31  
DURANGOKO  
BONBARDATZEAK  
OROITUZ

 durango

**DURANGO**

31 DE MARZO. CONMEMORACIÓN DE LOS BOMBARDEOS DE DURANGO





Ezkerrean, Correoseko eraikin zaharra. Eskuman, eguazteneko osoko bilkurako argazkia.

## Uko egin diote Correoseko eraikin zaharra birgaitzeko diru laguntzari, eskaturiko baldintzak betetzea "ezinezkoa delako"

Pinondo Etxean ipini dute begirada, eraikina berriro ere birgaitzeko aukera mahai gainean ipinita

### DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoako Correoseko eraikin zaharra kultur etxe bihurtzeko proiektuak beste bira bat izan du. Durangoako gobernu taldeak "uko egin behar izan dio" eraikina birgaitzeko diru laguntzari, bete beharreko baldintzak eta epeak konpliztea "ezinezkoa delako". Erabakia "bideragarritasun azterketa sakona" egin eta gero, "agintari eskudunekin kontsultak egin ondoren" eta kontraktasuna adierazten duen Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren txostena aztertuta hartu dute.

Sara Oveja zinegotziak eman du erabakiaren berri, eguaztenean eginiko osoko bilkuran. Arrazoiak duenez, "eraikina hiri antolamendutik kanpora dago, jatorrizko eraikinaren diskordantziak ebatzi barik daude, eta Durango Hirigune Historikoaren dekretuan ezarritako baldintzetariko batzuk ez dira betetzen". Horrez gainera, epeari loturiko arrazoiak azaldu ditu: "Ez du astirik ematen diru laguntzaren epea betetzeko. Izan ere, Plan Berezia aldatu eta berria onartu beharko litzateke horretarako, martxan

zegoen proiektua aldatu, berria idatzi eta obrak lizitatu", esan du Ovejak. Proiektua "salbatzeko ahalegina" egin duten arren, "egoerak aurrera egitea eragotzi" die.

### Pinondo Etxera begira

Edozelan ere, gobernu taldeak argitu du diru laguntzari "uko egin behar" izan dioten arren ez diotela aterik zarratu herrian kultur etxe bat sortzeko ideari. Pinondo Etxea birgaitzeko eta bertan kultur jarduerak garatzeko aukera ipini dute mahai gainean:

"Eraikina birgaitzeko baliabide ekonomikoak aztertuko ditugu. Birgaitze hori ez da berehalakoan helduko, baina beharrezkoak diren finantziario bideak topatuko ditugu". Eta postetxe zaharragaz zer gertatuko den? Bada, oraingoz ez dago behin betiko erabakirik, baina gobernu taldeak Correos zaharra botatzeko eta udal plaza handitzeko aukera mahaigaineratatu du.

### 2022ko azarotik hona

Correoseko eraikin zaharra kultur etxe bihurtzeko asmoa 2022ko azarokoa da. Espainiako Diputatuen Kongresuko EH Bilduk

1,5 milioi euroko diru laguntza adostu zuen Madrilgo gobernuagaz. Iazko otsailean proiektua izapidetzeko pausoak eman, eta proiektua idatzi ahal izateko aurrekontua kuantifikatu zuten.

Mireia Elkoroiribe alkatearen iritziz, proiektua gauzatzeko "ezintasuna" aurreko gobernu taldeak "presaka harturiko erabakiei" eta "EH Bilduren eta Herriaren Eskubidearen aurreikuspen faltari" zor zaie. Bestalde, "kulturagaz eta hiri garapenagaz duen konpromisoa" berretsi du, proiektuak herriaren egungo beharizatara eta egoeretara egokituko direla ziurtatuta.

## Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua berritu dute

2030erako ortuen %25 eredu ekologikoan lantzea ipini dute helburu moduan



Berrituriko kontseilua Ekolurrak Zornotzako Jauregi Barrian duen egoitzaren aurrean.

### ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Ekolurrak bere organigrama aldatu du. Datozen lau urteetan honako kide hauek osatuko dute kontseilua: Judit Gartzia Llorensek, Garikoitz Aiesta Etxanizek, Raul Rituerto Turradok, Sonia Ingunza Zumaldek, Miren Nekane Tomasena Elorzak, Anna Montserrat Minguellak, Jose Ramon Arrieta Zialzetak eta Iker Iglesias Eguiak. Kontsumitzaileen ordezkari legez, Euskadiko Kontsumitzaileen Elkarte Jon Ariño dago.

Nekazaritza ekologikoak goranzko joera duen arren, gaur egun lurren %5 baino ez dira lantzen era ekologikoan. 2030erako lurren %25 era ekologikoan lantzeko erronka dute.

## Zornotzako alkatea Errumaniako Máslenista jaietan izan da

Ainhoa Salterain alkateak Zornotzako Juravca abesbatzagaz bidaiatu du Errumaniako Braila herrira

### ZORNOTZA • ARITZ MALDONADO

Zornotzako alkate Ainhoa Salterainek Errumaniako Braila herrira bidaiatu du herriko Juravca abesbatzagaz Máslenista jaialdian parte hartuz. Bidaiak hartu-eman sendotzea eta hango kultura eta ondarea hurbiletik

ezagutzea izan ditu helburu. Salterainek esan du bidaiak "oso aberasgarria" izan dela: "Brailako balio eta ondareak lehenengo pertsonan ezagutzeko aukera izan dut, eta kultura-truke hori funtsezko osagaia izan da. Elkarren berri izateko aukera izan dugu".



Ainhoa Salterain Zornotzako alkatea Juravca abesbatzagaz.

# Elorrion berdintasun arloko prozesu parte hartzaile bat ipiniko dute martxan

Prozesua 'Piztu berdintasuna alkarregaz' deitzen da eta dinamizatzaile rola hartuko duten hainbat herritarrek gidatuko dute. Dinamizatzaileek dagoeneko izena eman dezakete

## ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berdintasunaren ikuspuntutik herritarrek 2030erako zelako Elorrion gura duten erabakitzeko asmoz, 'Piztu berdintasuna alkarregaz!' prozesua ipiniko dute martxan herrian.

Elorrioko Udaletik jakinarazi dutenez, dinamizatzaile talde bat osatuko dute prozesu honetarako, herrian elkarte eta herritarrekin solasaldiak izateko. Dinamizatzaileekin lan saio bi egitea da asmoa, hiru lanketa egiteko: batetik, Elorrion dauden bereizkeriak identifikatuko dituzte; bestetik, genero berdintasuna sustatzeko herriak behar dituen proiektu estrategikoak identifikatuko dituzte; eta, azkenik, eginiko hausnarketak

solasaldi pertsonalizatu bitartez partekatuko dituzte, herritarrekin eta herriko eragileekin kontrastatzeko.

Dinamizatzaile hauek apirilaren 16an eta maiatzaren 21ean

egingo diren saioetara joan behar dute, eta galdetegi bat bete. Dinamizatzaile izan gura duenak 946 570 809 telefonora deitu dezake, edo [berdintasuna@elorrion.eus](mailto:berdintasuna@elorrion.eus) helbidera idatzi.



Berdintasun murala Elorrion.



Argiñetako argazkia.

## Aste Santurako bisita gidatuak prest Elorrion

### ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Beste urte batez, Elorrioko turismo bulegoak herriko hainbat gune ezagutzeko aukera emango du. Denera, zazpi bisita gidatu egingo dituzte: hiru euskaraz eta lau gaztelaniaz. Martxoaren 28an eta 30ean basilika barrutik ikusteko aukera egongo da, eta 16 urtetik gorakoek kanpandorrera igotzeko aukera izango

dute; martxoaren 28an eta 29an Argiñetako altxorren txanda izango da; martxoaren 29an eta 31n gurutzeen bidea bisitatuko dute; eta martxoaren 30ean hiribildua.

Parte hartzeko, aurrez izena eman behar da, [turismoa@elorrion.eus](mailto:turismoa@elorrion.eus) helbidera idatzita edo honako telefono zenbakietako batera deituta: 946 820 164/688 776 270.

## ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Datorren maiatzaren 6tik 12ra bitartean, Zelaietako kaleetako mugikortasunari buruzko herri galdeketa egingo dute. Autoak eta oinezkoak auzoan nondik ibiliko diren zehaztea izango da galdeketaaren helburua.

Abadiñoko Udaletik jakinarazi dutenez, herri galdeketa proposamena abadiñarren eskarrietatik sortu zen: "Herritar askok jakinarazi zigun beharrezkoa zela kaleen antolaketa hobetzea". Horri erantzunez, udaleko partaidetza batzordeak prozesu bat hasi zuen herritarrekin batera, eta hainbat herritarrek parte hartu zuen bertan.

Prozesu horretatik bost proposamen irten dira eta, udaletik azaldu dutenez, orain proposamen ho-

# Zelaietako mugikortasunaren inguruko herri galdeketa egingo dute maiatzean

Maiatzaren 6tik 12ra egingo dute. Herritarrek bost proposamenen artean aukeratu beharko dute

rien artean aukeratu ahal izango dute abadiñarrek. "Abadiñarren parte hartzeagaz herria hobetzeko ariketa bat izango da herri galdeketa. Baina, horrez gainera, gizartearen parte hartzea, adostasuna eta gobernu estilo zabal bat lantzeko tresna ere izango da", adierazi dute.

Hori horrela, datorren asteetan informazio gehiago emango dutela jakinarazi dute, eta orduan azalduko dutela zer, noiz, zelan, zertarako eta gainerako guztiak.



Partaidetza batzordeak antolaturiko prozesuko argazki bat.

## Udala euri urak bideratzeko kanalizazioa hobetzen dabil Axpen

### ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Udala Axpeko gune bitako uren kanalizazioa hobetzen dabil egunotan. Gune bat elizaren atzeko aldean dago, baserri baten ondoan. Euri asko egiten zuenean urak gainezka egiten zuela zen arazoa, horditeria zaharkituta zegoelako. Hori konpontzeko, hainbat lan egin dute. Batetik, urak errekarra heldu artean egin beharreko bidea laburtu dute. Orain erreka parean zeharkatzen du bidea, lur azpiko kanalizazio berri batetik. "Horixe zen ura bideratzeko modurik efizienteena", azaldu du Joseba Urresti hirigintza zinegotziak.

Hobetzen dabilzan bigarren kanalizazioa Sagasta auzorako bidean dago. Kasu honetan ere, errepidea lur azpitik zeharkatzen zuen hodia zaharkituta zegoen. Ura pilatu egiten zen bertan, eta gainezka egiten zuen. Toki berean ipintzen dabilzan hodi berria "handiagoa eta sendagoa da".



Urriaren egindako omenaldiko argazkia.

## Jose Luis Zarrabeitia 'Urtain' atabalari abadiñarra hil da

Bihar, martxoak 23, herri omenaldia egingo diote Abadiñon

### ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Jose Luis Zarrabeitia *Urtain* atabalari abadiñarra domekan hil zen, 73 urte zituela. *Urtain* umetan hasi zen atabala jotzen, eta 12 urtegeaz bazebilen plazarik plaza. Azkenengo urteetan Durangoko, Iurretako eta Abadiñoako txistulariekin jo zuen.

Abadiñarra oso pertsona maitatua izan da dantzaren munduan, eta horren adibide da joan zen urriaren Durangon Jaizale txistulari elkarteak egin zion omenaldi hungigarria. Durangaldeko txis-

tulariak izan ziren bertan, eta txistu eta atabal doinuak izan ziren nagusi.

### Azkenengo urteetan Durangoko, Iurretako eta Abadiñoako txistulariekin jo zuen

Bihar, martxoak 23, zapatua, herri omenaldia egingo diote Abadiñon. 11:30ean Probalekutik kalejiran irtengo dira, eta 12:00etan San Trokaz plazan batuko dira.

# Osasun gida

 **Podologia**  
PSE: 214/06



OINEN ZAINZA ETA TRATAMENDUA  
IBILKERAREN AZTERKETA BIOMEKANIKOA  
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILAK

Herriko Gudarien kalea, 10 BEHEA  
DURANGO, Tel./Faxa: 946 215 404

 **Optometria**  
PSE: 162/13

NAIA ZABALA AUZMENDI  
11587 kol. zk.



keinu  
OPTOMETRIA ZENTROA

- JOKABIDE OPTOMETRIA • HAURREN IKUSMENA
- IKUSMENAREN ENTRENAMENDUA • JATORRIZKO ERREFLEXUAK • FOTOTERAPIA OPTOMETRIKOA
- SENA ENTZUMENAREN ESTIMULAZIOA • KIROL IKUSMENA • GARUNeko LESIOAK • UKIPEN LENTEAK
- ORTO-K ETA MIOPIAREN KONTROLA

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 946 225 099  
[www.keinuoptometriazentroa.com](http://www.keinuoptometriazentroa.com)

 **Proktologia**  
PSE: 16/22



Uzki eta zoru-pelbikoko patologien tratamendua

Mikeldi Kalea, 13, 48200  
Durango, Bizkaia  
(MAM Zentroa)  
674 322 360 / 747 474 699  
[info@proktos.clinic](mailto:info@proktos.clinic)

 **Psikologia**



**Haur, nerabe eta helduentzat**

Bikote-arazoak, antsietatea eta estresa, depresioa, eskola eta ikasketa zailtasunak, arreta goiztiarra, familia-arazoak, portaera-arazoak, estimulazio kognitiboa; oroimena, hizkuntza, arazoitze logikoa, elikadura-portaera, diskalkulia eta dislexia.

 **623 173 181 - 613 038 933**  
Andra mari 16 ID Durango

 **Fisioterapia**  
PSE: 119/13



**ZAINDUZ**  
Fisioterapia • Osteopatia

Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu.  
Saio personalizatuak dira, talde txikietan.

Trañabarren 13, 4. blokea  
behea eskuma  
MATIENA-ABADIÑO  
944 657 132 - 686 906 374

 **Fisioterapia**  
PSE: 57/16



pablo zubizarreta  
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D  
DURANGO  
[pzubizarreta@gmail.com](mailto:pzubizarreta@gmail.com)  
946 550 049 - 695 784 963

 **Odontologia**  
PSE: 145/13



clínica dental | hortz klinika  
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA • INPLANTOLOGIA • KIRURGIA • ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA IKUSEZINA • ODONTOPEDIATRIA • PADI • HORTZETAKO ESTETIKA • HORTZETAKO ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }  
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454  
[uecdental@gmail.com](mailto:uecdental@gmail.com)

 **Odontologia**  
PSE: 26/22



HORTZ-KLINIKA  
Konfiantzazko hortz klinika Durangon

**DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA, HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.**

Ordutegia:  
Astelehenetik ostiralera: 10:00 - 14:00 | 16:00 - 20:00  
Larunbata: hitzordua hartuta

944 14 80 36 | 626 18 30 30  
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia  
[www.clinicadentalviteri.com](http://www.clinicadentalviteri.com)



# Udalak 4.500 arbola autoktono landatuko ditu lurretako Artatza mendia basoberritzeko

lurretako Udalak baso naturala lehengoratzea eta biztanleei aisialdirako erabilera eskaintzea ditu helburu. Horretarako, 2.300 haritz eta beste 2.102 urki landatuko dituzte. Basoberritzeko proiektuak 38.258 euroko aurrekontua izan du

**IURRETA • AITZIBER BASAURI**

Lurretako Udala Artatza mendia basoberritzen dabil, eta, horretarako, bertako ia 4.500 zuhaitz landatuko ditu. Baso naturala lehengoratzea eta biztanleei aisialdirako erabilera eskaintzea dira helburuak, eta, horretarako, "espezie autoktonorik egokienak" erabiliko dituzte, udal arduradunek jakinarazi dutenez. "Landare eboluzioak landare formazio heldu eta askotarikoetarantz aurrera egiteko behar diren baldintzak sortuko dira", zehaztu dute. Basoberritzeko proiektuak 38.258 euroko aurrekontua izan du.

Horrela, 2.300 haritz eta beste 2.102 urki landatuko dituzte; guztira, 4.402 arbola. Landatu beharreko espezieak ausaz banatu dituzte, udal arduradunek azaldu dutenez. Gainera, martxoaren 21ean Basoen Nazioarteko Eguna ospatu dela aintzat hartuta, udalak zuhaitzak landatzeko ekitaldia egin zuen Maiztegi eskolako

LHko 3. mailako ikasleekin joan zen martxoaren 15ean. "Ekimenagaz gazteenak kontzientziatu gura ditugu, basoek iraunkortasunean, ingurumen segurtasunean eta ur horniduran duten garrantziaz jabetu daitezten. Era

berean, gure basoak ezagututa gure ondare naturala ezagutuko dute", adierazi du Zorione Fundazurik.

Lurretako Udalak urteak daramatza kudeaketa eraginkorragoa lortzeko lanean, Fundazurik

adierazi duenez. "Iraunkortasun irizpideei jarraituta eta espezie autoktonoak dituzten lursailak basoberrituta", nabarmendu du. Mendi horiek helburu horregaz erosi ziren, baso autoktonoa berreskuratzeko, 2022ko abenduan.



Udalak zuhaitzak landatzeko ekitaldia egin zuen Maiztegi eskolako LHko 3. mailako ikasleekin martxoaren 15ean.

## Udalekuetarako izen ematea egingo dute Mañarian, apirilaren 8tik 19ra

**MAÑARIA • J.D.**

Aurten Berbaro elkarteak antolatuko ditu Mañariko udalekuak. 2008tik 2021era bitartean jaiotako gazteei zuzenduta daude eta ekainaren 24an hasiko dira. Lau aste iraungo dute. Adin tarreetan banatuta, askotariko ekintzekin gozatzeko aukera eskainiko dute. Esaterako, 12tik 16 urtera bitartekoentzat aste ibiltaria egingo dute, uztailearen 1etik 5era.

**Udalekuak 2008 eta 2021 urte arteko umeei bideratuta daude; ekainaren 24an hasiko dira**

Udalekuetan parte hartzeko izen ematea apirilaren 8tik 19ra izango da. Apirilaren 8tik 10erako hiru egunetan, Mañarian erroldatuta daudenak apuntatu ahal izango dira. Gainerako guztiek apirilaren 11tik 19ra izango dute horretarako aukera.



Aditua den enpresa batek prestatuko ditu alegazioak.

## Udalak alegazioak aurkeztuko ditu parke eolikoaren harira

Otxandioko Udaleko alegazioak Kastillo inguruko basoek osaturiko ekosistema zaintzeari buruzkoak izango dira

**OTXANDIO • J.D.**

Kastillo mendiaren inguruetan parke eoliko bat eraikitzeke dagoen egitasmoaren aurrean, proiektuari alegazioak ipintzeko asmoa duela iragarri du Otxandioko Udalak. Parkeko lau aerosorgailuak Legution ipiniko lirakeke, eta dorre meteorologiko bat Ubideko lurretan. Nahiz eta parkea Otxandioko lurretan ez kokatu, "Kas-

tillo inguruko bertoko basoek osaturiko ekosistema naturalak babestea helburu luketen alegazioak" aurkeztuko dizkio udalak ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari. Alegazioak prestatzeko lanak ingurumenen aditua den enpresa bati esleitu dizkiote, eta apirilak 4a baino lehenago aurkeztuko dituzte.

## Plaza zelan berri jakiteko, herri batzarrera deitu dute Izurtzan

Deialdia apirilaren 8rako da, erabilera anitzeko eraikinean

**IZURTZA • J.D.**

Izurtzako herrigunean dagoen plazari bizi berri bat eman gura dio udalak. Hango espazio zabalarari gaur egungoa baino etekin handiagoa atera dakiokela uste dute. Oihane Irastorza alkateak esan du proiektu hau "garrantzitsua" izango dela legegintzaldi honetan. Herritarren iritzia kontuan hartuta gauzatu gura duten egitasmoa da. Ildo horretatik, gai honen inguruko herri batzarrera deitu dituzte herritarrak apirilaren 8ko astelehenerako. 18:00etan izango da, erabilera

anitzeko eraikinean. Udalak bere asmoa azalduko du bertan, eta herritarrek euren proposamenak plazaratzeko aukera izango dute. Udalak herritarren ekarpenak kontuan hartuko ditu aurreproiektua egiterako orduan.

**Jaiak antolatzeko batzarra**

Apirilaren 8rako beste deialdi bat ere badago. Kasu honetan, jaiak antolatzeko batzarrera deitu dituzte herritarrak. Batzar hau ordubete geroago hasiko da, 19:00etan, erabilera anitzeko eraikinean.



Plazari etekin gehiago atera gura diote eraberrituta.

## Mallabiari buruzko bost galdera berri martxoan, 'Ez Esan' lehiaketaren barruan

**MALLABIA • J.D.**

*Ez Esan* galdera-erantzunen jokoak aurrera jarraitzen du. Otsaileko irabazleak aukeratu, martxoko galderak jakinarazi ditu Berbalagunek. Galderei zuzen erantzuten dieten artetik irtengo da maiatz-ekaineko galarako bigarren bikotea. 'Zein azalera du Mallabiak?' eta 'Zein urtetan egin ziren lehenengo urriko jaiak?', dira galderetarik bi. Beste batean, 2007, 2009, 2010. urteetan munduko txapeldun izandako herriko kirolaria nor den galdetzen dute. Laugarren galdera asmatzeko, herriko historian arakatu beharra dago, Franco hil ondorengo udal hauteskundeetan (1979) aukeraturiko lehenengo alkateta nor zen galdetzen dute eta. Azkeneko galderak honela dio: 'Pintto Pintto' abestia Zegaman bizi den mallabitar batek jaso zuen eta 'Kixki ta Mixki ta Kaxkamelon' pailazoek (gero 'Txirri ta Mirri eta Txiribiton' izango zirenak) egin zuten ezagun. Nor izan zen mallabitar hori?'



# “Uzkiari edo zoru pelbikoari loturiko arazoren bat duenak bizi kalitatea eta lasaitasuna berreskuratuko ditu gūgaz”

Durangoko Proktos Clinic zentroan konfiantza osoagaz eta arretarik osatuenagaz lan egiten dute uzkiari edo zoru pelbikoari loturiko arazoak tratatzeko

## OSASUNA • EKAITZ HERRERA

Izaskun Badiola Bergara (Ondarroa, 1982), Amaia Sainz Larrainzar (Mungia, 1981) eta Fernando Jiménez Escovar (Kolonbia, 1970) zirujau orokor proktologoak dira.

### Zelako zerbitzuak eskaintzen ditu Proktos Clinic zentroak?

F.I.: Proktos Clinicen uzkiari edo zoru pelbikoari loturiko arazoak dituzten pazienteak artatzen ditugu. Proktologia ondesteko, uzkiari edo zoru pelbikoari loturiko gaixotasunak ikertzen eta tratatzen dituen kirurgiaren arloa da. Tratamendu horien barruan daude, adibidez, hemorroideak, uzkiari fisurak eta fistulak.

A.S.: Horrez gainera, uzki inguruari eta perineo inguruari eragiten dieten sexu-transmisiozko infekzioak artatzen ditugu. Uzkiari azkura duten askok, adibidez, ez dakite nora jo. "Leku egokira etorri naiz?", galdetzen digute. Bada, bai. Jakina leku egokira etorri direna. Bestalde, zoru pelbikoari loturiko arazoak tratatzen ditugu: idorreria, inkontinentzia eta min pelbikoak. Baita haurdunaldiaren ondoren zoru pelbikoan alterazioen bat jasan duten pazienteak ere.

### Aipaturiko gaixotasunen artean, zeintzuk dira ohikoena?

F.I.: Kontsultarik ohikoena hemorroideei, uzkiari minei, uzkiari azkurei eta fisurari loturikoak dira.

A.S.: Bai. Esango nuke hona datozten paziente askoren gaixotasun nagusia hemorroideak direla. Ondoz horren atzetik etorriko lirakeke fisurak, min pelbikoa eta azkura. Azken hau dela eta, asko dira uzkiari azkura sentitu eta gūgana datozten pazienteak.

### Egiten dugu behar den beste berba uzkiari, zoru pelbikoari eta ondesteari loturiko gaixotasunei buruz?

F.I.: Ez. Gorputz atal horiei buruz berba egitea tabu moduko bat da, are gehiago zonalde horietan gaixotasunen bat badago. Gainera, jende askok ez daki inguru horri erreparatzen dion medikuntza-espezialitate bat dagoenik ere.

A.S.: Ahoan minen bat dugunean dentistarenera joateko ohitura dugu; belaunean minen bat dugunean, traumatologoarenera goaz, eta emakumeok aldiro-aldiro ditugu zitologia eta mamografia



Izaskun Badiola, Fernando Jiménez eta Amaia Sainz.

probak. Bada, uzkiagaz ere, berdin. Arazoetariko askok konponbidea dute, beste kasu batzuetan patologia larriak prebenitu ditzakegu, eta laguntza eskaini dezakegu.

F.I.: Lotsa moduko bat dago orokortuta. Gernu inkontinentziari buruz, adibidez, berba apur bat egiten da; baina inkontinentzia fekalari buruz batere ez. Oso ezkutatuta dauka-

### Arazoetariko askok konponbidea dute; beste kasu batzuetan patologia larriak prebenitu ditzakegu

gu. Askok lotsatzen gaitu.

A.S.: Arazo hori duten gehienak emakumeak dira. Badira haurdunaldiaren ondoren inkontinentzia

fekalagaz arazoak dituzten emakumeak, eta badira adinean aurrera eginda gaixotasun hori garatu dutenak. Askok uste dute umeak izateagaitik ordaindu beharreko prezioa dela. Baina hori ez da inondik inora ere horrela interpretatu behar.

### Zelan azpimarratu dezakegu gorputz atal horiek zaintzeak duen garrantzia?

A.S.: Arrazoi bi hauekin. Batetik, bizi kalitatean irabaziko dugulako. Gu kontsultatu eta gero, sintomek hobera egingo dute eta pazienteak lasaiago biziko da. Bestetik, gūgana etortzeak patologia larriak deskartatzeko aukera eskaintzen du. Patologiak deskartatzeko ikuskatze horietan, adibidez, sexu-transmisiozko gaixotasunak kutsatzea prebenitu dezakegu. Gainera, gaixotasun batzuk badauden ala ez ikusteko, fistuletarako adibidez, ekografoa darabilgu. Guk dakigula, Bizkaian uzkiari edo zoru pelbikoari loturiko arazoak tratatzeko

klinika bakarra da gurea.

F.I.: Uzkiari edozein sintoma igarritakoan etorri behar da hona, gaitza garatu baino lehenago, okerrera egin baino lehenago. Horretarako gaude, laguntzeko.

### Proktos Clinic zentroan zelan laguntzen diezue lotsatuta edo urduri bertaraten diren pazienteei?

### Gure ezaugarri nagusia pazienteari gertutasuna, enpatia, konfiantza eta ulermena eskaintzea da

F.I.: Gure ezaugarri nagusia pazienteari gertutasuna, enpatia, konfiantza eta ulermena eskaintzea da. Gure taldea kualifikazio maila gorenekoa da, arazoa edo gaixotasuna

gainditzeko arreta eta konfiantza osoa eskaintzen duena.

A.S.: Pazienteak beldur moduko batez etortzen dira gūgana, baina hemen ez dugu inor epaitzen. Isilik edo urduri dauden horiei gūgana lasai etortzeko esango nieke. Beharrezkoak diren proba guztiak egingo dizkiegu, behar duten guztia emango diegu, eta behar duten tratamendua eskaini.

### Pazienteak zein interesdunak, zelan ipini daitezke zuekin hartu-emanen?

A.S.: Bide asko dago gūgana heltzeko. Batetik, proktos.clinic web ataria daukagu. Hor gure kontsulta bietako telefonoak daude: Durangoko MAM zentroan daukagun klinikakoa (674322360), eta Bilboko Kinett Advanced klinikakoa (944050707 eta 688866269). Bestalde, info@proktos.clinic helbide elektronikoa eta proktos.clinic Instagram kontua ere baditugu.



**anboto**  
kide

Anbotokideen  
txokoa

## ZOZKETAK

Adi egon! Aste Santuaren  
ondoren zozketa gehiago  
izango ditugu.

## IRABAZLEAK

'Euskaldungak': Nagore Blanco Ruiz

'Baginaren bakarriketak': Gontzal Sarrigoitia Oregi

'Almazenean': Ismene Agirre Maguregi

### Okm:

batzen gaituen  
distantzia

Egin zaituzte Anbotokide  
eta parte hartu gure  
zozketetan!



## Umeentzako Mendi Erronka antolatu dute Berrizen

Ekimenak bigarren edizioa du; izena emateko epea apirilaren 15era arte egongo da zabalik

**BERRIZ • A.M.**

Berrizko Amaraune Mendi Elkartek Umeentzako Mendi Erronka ekimena antolatu du, bigarren; udalaren laguntza izan du horretarako. Gazteen artean mendizaletasuna sustatzeko helburuagaz antolatu dute erronka. Kategoria bitan banatuta parte hartuko dute. Alde batetik, 2014tik aurrera jaiotakoek parte hartuko dute, eta, bestetik, 2006tik 2013ra bitartean jaiotakoek; lehenengo taldekoentzat bost mendiko gailurretara heltzea proposatu dute, eta bigarren taldekoentzat zortzi tontorretara igotzea. Ekimena doakoa izango da eta parte hartu

gura dutenek apirilaren 15era bitarteko epea izango dute izena emateko. Horretarako, [idoiapeio@yahoo.es](mailto:idoiapeio@yahoo.es) helbidera idatzi beharko da, edota 670 354 762 telefonora deitu. Parte hartzaileek abenduaren 1era bitarteko epea izango dute erronka betetzeko.

Mendi erronkaren helburua mendizaletasuna sustatzea da eta antolatzaileek gogoratu dute ekimena ez dela lehiaketa bat. Besteak beste, Gallanda, Sarrimendi, Oiz, Intxorta edo Saibi mendiek osatzen dute igo beharreko mendien zerrenda. Antolatzaileek oroigarri bana emango diete erronka betetzen dutenei.

## Berrizko Udalaren udalekuak uztailearen 3tik 19ra bitartean izango dira

**BERRIZ • A.M.**

Berrizko Udalak uztailearen 3tik 9ra bitartean egingo ditu 2024ko udalekuak. Aurten ere, 4tik 16 urtera bitarteko haur eta gazteei aisialdi eta denbora libreko eskaintza errazteko asmoz antolatu dituzte udalekuak. Aurreko edizioetan legez, hiru multzotan banatuko dituzte parte hartzaileak. Alde batetik, Txiki-txoko programa eskainiko dute, HHko 4. eta 5. mailako ikasleentzat; bestalde, LHko ikasleentzat Kirol udalekuak euskaraz programa eskainiko dute; amaitzeko, DBHko ikasleek Uda gazte ibiltarian parte hartu ahal izango dute, zazpi gau eta zortzi egunez. Kasu honetan, DBHko 1. eta 2. mailako ikasleek uztailearen 3tik 10era parte hartuko dute, eta 3. eta 4. mailakoek 10etik 17ra bidaiatzeko aukera izango dute. Guztira, udalak 150 plaza eskainiko ditu.


Udalekuearako izen ematea Internet bidez egin beharko da, Berrizko Udalaren webgunean; atarian bertan, interesgarria izan daitekeen informazio gehiago ere badago. Informazio gehiago behar izanez gero, udalak [berriz@berriz.eus](mailto:berriz@berriz.eus) helbidera idazteko edota 946 824 036 edo 946 824 584 telefonoetara deitzeko aukera eskaini du.

## N-634 errepidea itxiko dute asteburuan Zaldibarren, trenbideko proiektuagaitik

Martxoaren 22an, 23an eta 24an egongo da itxita errepidea, 23:00etatik 05:00etara; otsailean ixtekoak ziren, baina egindako eguraldi txarraren ondorioz ez ixtea erabaki zuten

**ZALDIBAR • A.M.**

Eusko Trenbide Sareakek (ETS) Zaldibarko trenbide pasagunea kentzeko eta geltokia eraberritzeko duen proiektuaren barruan, hurrengo lanek N-634 errepidearen ohiko funtzionamenduari eragingo diote. Trenbidearen eta errepidearen gaineko pasabideak ipintzeko, martxoaren 22an, 23an eta 24an N-634 errepidea itxita egongo da Zaldibar parean, 23:00etatik 05:00etara bitartean. Zaldibarko Udalak honako alternatiba hauek proposatu dizkie bizilagunei eta herritarrei hurrengo egunetan erabiltzeko: Zaldibar-Ermua noranzkoa Elizondo kaletik egingo da, eta Zal-



dibar-Berriz noranzkoa Goierri bidetik. Otsail amaieran ziren lan hauek egiteko, baina ez zituzten egin, eguraldi txarragaitik.



Etxeitako artea eta herriko banderaren koloreak Garaiko nagusien elkarteko logotipoan.

## Logotipoa eta kantu liburua sortuta, Garaiko nagusien elkarteak indarberrituta bete du bere 30.urteurrena

Garaiko nagusien elkarteak urteurren jai ederra ospatu zuen martxoaren 9an. 30 urteak goraiatu eta aurrera begirakoak ere zehaztu zituzten. 'Kantulagun' egitasmoa iragarri dute

### GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaiko nagusien elkarteak zorio-  
neko dago. 30 urteko ibilbidea bete du. Eta ospakizuna martxoaren 9an egin zuten arren, elkarteko kideek argi dute egun berezi hartan bizitakoaren oihartzunak luze iraungo diela. Virginia Ormaetxea elkarteko kidearen kasua, behintzat, horixe da. Ospakizuna "sekula ez ahazteko eguna" izan zen berarentzat. Honela deskribatu du egun hartan bizitakoa: "Urteurren ospakizuna elkarteak sortu zuten herritarrak omenduta hasi genuen. Eta elkarteak sortu zuten zortzi kideetatik hiru bizirik daudenez, opari bana egin genien. Iruri Altzerrekak eginiko bertsoak jasotzen dituen pergaminu bana". Ezkerreko irudian ikusi daitezke bertsoak, Mikel Urdangarinen *Badira hiru aste* doinuagaz kantatzeko aproposak. "Oso bertso politak dira, eta guretzat

balio handikoak direnez, nagusien elkarteko ereserki modura baliatuko ditugu, gure nortasunaren ikur modura", azaldu du Ormaetxeak. Omenduei pergaminu bana oparituta, dantzari gazte bik banangoa dantzatu zieten. Garai Kantari kantu-liburua eta aurrerantzean elkarteko ikur izango den logotipoa aurkeztuta egin zuten aurrera egunagaz. Logotipoan, Garaiko banderaren ageri diren koloreak eta Etxeitako artea irudikatu dituzte. "Oraingoan, 30 zerbakia mantenduko dugu, baina denbora bat pasatuta zerbakia kendu eta gainerakoari eutsiko diogu", zehaztu du Ormaetxeak.

### Kanturako prest

Eta zer litzateke ospakizun bat kanturik barik? Omenaldian bertan Altzerrekaren bertsoak kantatu zituzten. Baina abestearen gozamen hain ederra denez,

Garaiko nagusiek urrutirago joatea erabaki dute. Udalagaz batera argitaraturiko kantu liburua baliatuta, Kantulagun egitasmoa egingo dute hile bakoitzeko lehenengo barikuan. "Oraingoan hiru abesti ditugu prest, Kantariekin batera trikitilari bi egoten gara. Elkartearen bertsoak, *Aita-semeak* eta *Aitorren hizkuntza zaharra* prestatu ditugu. Baina gehiago lantzen gabilta," jakinarazi du Ormaetxeak. Kantak prestatze aldera, eguazten arratsaldeetan elkarte eta arratsalde-pasa egiten dute Otea-Loran elkartearen. Hori bai, izan jubilatzen zein ez, herritar guztiak gonbidatu dituzte egitasmoan parte hartzera. Apirilaren 5ean egingo dute lehenengo Kantulagun, Garaiko nagusiek ohikoa duten eran, egitasmo bakoitzagaz gozatzen eta gozarazten. Eta, zelan ez, beste 30 urterako umore ona zabaltzen.



Iruri Altzerrekaren bertsoekin osaturiko pergaminua oparitu zieten omenduei.

# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, KOOP. E.

## Goi Mailako Heziketa Zikloak

- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuak
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia
- Automatizazio eta Robotika Industrialia

## Espezializazio ikastaroa

- Industria Mantentzearen Digitalizazioa

#LanerakoGertu

## ATE IREKIAK

**Martxoak 23** 11:00etan

**Maiatzak 4** 11:00etan

**Eman izena!**

MGEP: 664298683  
664298704



[mondragon.edu/lanbideheziketa](http://mondragon.edu/lanbideheziketa)



Apurka-apurka kanpainara establezimendu gehiago batzen joatea da udalaren asmoa.

## Durangon 'Euskaraz barra-barra' kanpainara hogei establezimendu batu dira

Kanpainari loturiko ikurra ipini dute 20 saltokitan, euskaraz airtzeko aukera bermatzen dutela adierazteko

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Durango 20 establezimenduk *Euskaraz barra-barra* kanpainagaz bat egin dute. Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak hasitako kanpaina da eta saltokiek kanpainako ikurra ipini dute euren ikusgai, bezeroei euskaraz erabiltzeko aukera zabalik dutela adierazteko.

Apurka kanpainara establezimendu gehiago batzen joatea da udalaren asmoa, "herritarrei udalerrri osoan euskaraz erabiltzeko gogodapen aktiboa" eginda. Bat egin gura duten saltokiek Euskaraz Zerbitzuagaz ipini behar dute hartu-emanen, eskuragarri ipinitako inprimakia beteta zein 630 474 332 telefono zenbakira deitu dezakete informazio gehiago eskuratzeko.

### Politikan

Patxi Lakunza  
Herriaren eskubidea



### Kultura, amarrua eta txerria

Hainbeste maite dute herri-kultura, non horren aldeko apustua egiten baitute irri-garria egiten jarraitu eta akatsa onartu beste erremediorik ez dutenean, Durangorentzat egindako Mikeldiak duen lana, dedikazioa, altruismoa, onarpena eta sinbologia ezkurra baino gutxiago axola zaiela erakutsi ondoren.

Ondoren, beharrezko bazkidea dugu, "amarrua" iruditzen zaiona, kulturaren benetako maitaleek sortutako sinbolo bat, txerria, jaso

### Durungaldea asteen

#### Natividad Monsalve Diezek 100 urte egin ditu

**DURANGO** | Natividad Monsalve Diez durangarrak mende bat bete zuen zapatuan. Mireia Elkoroiribe alkateak eta Jessica Ruiz alkateordeak lore sorta batez zoriondu zuten Monsalve, Durango herriaren izenean. Monsalvek senideekin ospatu zuen mendeurrena.



#### Leiz-Miñota auzoko bolatokia birgaitu dute

**ELORRIO** | Elorrioko Udaletik jakinarazi dutenez, 1970eko hamarkadan eraikitako bolatokia konpondu dute. Zurezko egituraren elementu bi aldatu dituzte, hondatuta zeudelako: habe bat eta pilare bat. Horrez gainera, xilofagoaren aurkako tratamendua eman diote egiturari, kardamu zantzuak direla eta. Bestalde, itxitura ere konpondu dute.

### Iritzia

ASTEKARIA@ANBOTO.ORG • ASTEARTEA 17:00AK ARTEKO EPEA

#### Mikel Sopolana Basauri KRISTAUA

Hara ze izenburua! Zer kabernikola ete dator hemen! Badira hamabost bat egun Mikel gure artetik joan zitzaigunetik edo, agian, gure artean, gure gomutan betiko itsatsi, betiko inkatuta geratu zitzaigunetik. Kantatu dagiguzan bihotzeko penak/Mikelen heriotzak erain deuskuzanak... Ijorretako plazan abestu genuen. Batzuek ahots goran errime eta beste batzuek ahots totelez zizpuruei eutsi ezinez. Zurtz, lagunzurtz gelditu gara herrian. Egunsentiko izar seinale barik... eguneko lanak/Sopek bere bidean ereindako danak/kirol, kantu, euskera, dantza ta herri-min... entzun, esan, irakurri, denon ahotan izan dugu eta aireratu dugu militantzia, EGI, HB, presoak, dantzaria, futbolaria, jai-batzordea, Gerediaga, kofradiak, desanexioa, Abendu-Santa Ageda kantaria...

Inork ez du, inork ez dugu aitatu Mikel kristaua. XXI.mendearen holakorik errebindikatzea mmmm! Mikel nik San Migel parrokiako koruan triple kantetan ezagutu nuen 50eko hamarkadan eta harez gero tenor kordan hutsegini bage domekero eta jaiero hor, hemen izan dugu. Azkenengoz 2024ko urtebarri egunez. Meza nagusi, bederatziurren, hileta, ideologi guztietako hiletetan kantuan, Goiuriako Andra Mariaren jaitsiera eta jasokunde arrosarioetan, Ijorretako ermitetako jai egunetan... Kristaua zen Mikel. Kristau ez-konformea, agian. Zer da kristau izatea? Zelan neurtzen da inoren kristautasuna? Baina EGiko ala HBko ala pankartako militantzia neurtzeko zelango metroa erabili dezakegu?

Bere lagun-min eta gidari izan zuen Julen Kaltzada abadeari hileta elizkizuna egin zitzaion modu berean Mikel Sopolana Basauri ere, herriko San Migel parrokiaren, kristau- hileta elizkizun bero eta jendetsuan agurtu genuen. Agur, Egun Handirarte!

(Mikeli hau ere zor (ge)nion)

Anttonmari Aldekoa-Otalora Zamalloak,  
gereziendoak lorera datozenean, 2024.martxoan.

#### Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9. - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarsteak barne).

### Kasualitatea ote da, halaber, kultura zahar eta zaharkitu hori Durangoko gobernuaren zati batekin bat etortzea?

eta zaintzeak duen garrantzi ikaragarriari buruz eztabai-datzea. Berak kulturatzat jotzen du zezenketa, eta miretsi egiten du Nerbioi ibaia Durangotik igaro izana. Kultura Puri-purian. Kasualitatea ote da, halaber, kultura zahar eta zaharkitu hori Durangoko gobernuaren zati batekin bat etortzea?

Eskuahaldunak Eskultoreen Elkarteak egindako egurrezko Mikeldia Durangon geratzen da, Durangok hala nahi duelako, eta Durangoko kultura delako.

Zure erabakien errua beste egotzi ezin diezunean, eta ultimatumak erretiratze kutre eta justifikaziorik gabeko bihurtzen direnean, gobernatzeko modu egokia dela esaten digute.

**hitz** artekalea 23, durango  
946 810 776  
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#salduenak

1<sup>o</sup>

**MAITASUN KAPITALA**  
Karmele Jaio (Elkar)

2<sup>o</sup>

**MARKOS GIMENOAREN 101 LETRAKARTEL**  
Joseba Sarrionandia (Pamiela)

3<sup>o</sup>

**JUANA**  
Jon Artano Izeta (Elkar)

**DIBA**  
K O O P E R A T I B A

Durungaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92



## “Korrika dagoenik eta gauzarik ederrena da, Euskal Herriaren osotasuna ikusten da bertan”

Nieves Aranoa eta Maritxu Ugarte Durangaldeko AEK-ko aitzindarietarik bi dira. Herritarrak euskaraz alfabetatzeko lanari ekin zioten, dena egiteko zegoen garai batean

AEK • EKAITZ HERRERA

'AEK-ko beteranoak'. Halantxik zuen izena Kortatuk ezagun eginiko abes-tietariko batek, eta gure inguruan ere esan daiteke badagoela hala-korik, Nieves Aranoa Gerrikabeitia (Traña-Matiena, Abadiño, 1944) eta Maritxu Ugarte Zubizarreta (Oromiño, lurreta, 1942) ere AEK-ko beteranoak dira eta. Beteranoak, baina, batez ere, erreferenteak eta aitzindariak. Durangaldeko euskalgintzan dena egiteko zegoen garaian eurak izan ziren-eta AEK-ko irakasleen artean lehenengoak. Korrikan egiten den antzera, ibilbideari ekin eta pausoz pauso belaunaldi berrientzako oinarriak ipini zituzten.

Grabagailua oraindino martxan ipini ez, eta egunotarako aproposa den titularrak eman didazue ia-ia: "Korrika

dagoenik eta gauzarik ederrena da".

**Maritxu Ugarte:** Izan ere, halantxik da. Korrikaren modukorik ez dago. Ez dago mundu osoan hizkuntza baten alde egiten den horrelako egitasmorik.

**Nieves Aranoa:** Bat nator Maritxu-gaz. Euskal Herriaren osotasuna ikusten dut Korrikan. Autonomia

**Orain badakizu Korrika nondik nora dabilen, baina lehenengo urteetan ordu biko atzerapenak egoten ziren**

Erkidego, Foru Erkidego eta Departamentu izateari utzi eta Euskal Herria, euskararen herria, izatera

igarotzen gara. Berdin Maulen zein Erriberan.

**Orain bai, orain AEK-k eta Korrikak ibilbide mardula dute. Baina zuek zelan hasi zineten bertan?**

**M.U.:** Ni Justo Alberdiren eta Kristina Mardarasen bitartez heldu nintzen AEKra. Mendebaldeko euskalkia erabiltzen dugunez, hasieran gatx egin zitzaigun euskara batura moldatzea. Gainera, etxean beste oztopo bat nuen. Senarragaz egundoko ika-mikak izaten nituen gau eskolara eta batzarretara iluntzeetan edo gauez joaten nintzelako. Esaten zidan ezin nuela halakorik egin. Eta, hara, azkenerako banatzea erabaki genuen. Lehenengo, euskaraz alfabetatu behar izan genuen, gero euskara irakatsi ahal izateko.

**N.A.:** Nire kasuan, Traña-Matienatik Durangora etorri nintzenean hasi zen dena. Umeak Kurutzia ikastolara joan eta euskara ikasten zebiltzala ikustean, neure artean pentsatu nuen: "Nik ere euskara ikasi behar dut. Berba ondo egin arren, alfabetatu egin behar dut". Gerora, hango irakasle batzuek irakaskuntza lanetan hastea proposatu zidaten. Horixe izan zen nire lehenengo betebeharra, umeen gurasoei euskara irakastea. Astean birritan ematen nituen eskolak, iluntze-gauetan.

**Euskaltegiak, gau eskolak, pedagogia... garai hartan dena zegoen egiteko.**

**N.A.:** Den-dena. Batean idatzi, bestean idatzi, materiala prestatu,

arbelagaz lan egin. Euskaltegian ez zegoen fotokopiagailurik. Urte bat edo bi Kurutzia egin genituen, eta gero Pinondo Etxera joan ginen. Gau eskolan sarritan ibili nintzen irakasle; 20:00etatik 22:00etara ematen nituen eskolak. Ikasleak oso motibatuta etortzen ziren, gogo bizia zuten euskara ikasteko, eta oso klase onak ziren. Gaur egun beste motibazio batzuk daude, tituluak edo beste batzuk.

**M.U.:** Nire ikasle batzuek, orduan euskararik egundo batere entzun bakoak, euskara ikasi eta unibertsitate ikasketak euskaraz egin zituzten. Jendea gogo handiagaz etortzen zen euskara ikastera. Behar egin eta gero etortzen ziren euskaltegira.

**N.A.:** Gaur egun baliabide ugari dago AEKn, asko profesionalizatu da. Ibilbide ederra egin du, nahiz eta oraindino asko dugun egiteko, erabilera batez ere. Kezka itzela dut horregaz. Ni orain dela 52 urte

**Orain dela 52 urte etorri nintzen Durangora, eta garai hartakoagaz alderatuta gaurko Durango askoz ere euskaldunagoa da**

etorri nintzen Durangora, eta garai hartakoagaz alderatuta gaurko Durango askoz ere euskaldunagoa da.

Baina erabilerari dagokionez, buelta bat ematera irteten duzu eta...

**M.U.:** ... eta euskaraz egiten duten gazteak badauden arren, askok erdaraz egiten dute euren artean. Horrek asko ernegatzen nau.

**Noiz arte ibili zineten AEKn?**

**N.A.:** Jubilatuta arte. Durangon hasi arren, gero Eibarko AEKra joan nintzen beharrera. Hiru hamarkada egin ditut AEKn irakasle. Oso oroitzen onak ditut, pozik egon naiz beharrean.

**M.U.:** Nik ere hiru bat hamarkada egin nituen irakasle. Baina jubilatuta aurreko azken bederatzi urteak umezain egin nituen, Elorriean.

**Gaur egun Korrika zer den gauza jakina da, baina zuek lehenengo edizioa ezagutu eta antolatu zenuten. Gauza berria garai hartan, ezezaguna.**

**N.A.:** Dirua falta zela-eta lasterketa bat antolatzeko ideia sortu zen AEK barruan. Azaltzen ziguten lekuko bat eskutik eskura pasatuta egingo zela, baina, jakina, horrelako zeozer irudikatzea gatx zen garai hartan. Bestalde, egoera politikoa oso gogorra zen, eta AEKrentzat ere garai gogorak izan ziren. Korrikaren lehenengo edizio hura benetan hasiko ote zen, debekatu egingo ote zuten... kezka hori genuela dut gogoan. Gero, batera eta bestera ibiltzen ginen Korrikan parte hartzea eskatzeko, eta ezezkoak jasotzen genituen.

**M.U.:** Antolatzekoa zen hori zer ote zen galdetzen genion geure buruari. Orain badakizu Korrika nondik nora dabilen, baina sasoi hartan ordu biko atzerapenak egoten ziren. Itxaron eta itxaron. "Etorriko ote da?", pentsatzen genuen. Zenbat kilometro santu egingo ote nituen hemendik Eubara, Eubatik Abadiñora, jendea nondik zebilen ikusteko.

**Izan duzue inoiz lekukoa eroateko ohorerik?**

**M.U.:** Behin eroan dut eta itzela izan zen. Iurretako Batzoki parean hartu eta Maspe aldera eroan nuen. Uste dut negar batean egin nuela tarte guztia.

**N.A.:** Nik ere behin eroan dut. Kurutzia ikastolaren parean hartu eta Pinondo aldera eroan nuen. Emozio handia sentitu nuen, oso hunkituta nengoen. Magikoa da lekukoa eroatea, bizi beharrekoa.

**Korrikak Durangaldeko herririk gehienak zeharkatuko ditu gaur. Zein izango da zuen plana?**

**N.A.:** Nik lagun artean afalduko dut lehenengo. Milarenean afalduko dugu, Mesoi Barrian. Eta gero, Korrika Durangora ailegatzen denean, ahal bezain beste egingo dut arineketa.

**M.U.:** Ezin dut korrikarik egin, baina harrera egitera irtengo dut kalera. Datorrenerako, nondik edo handik baten bat topatu behar dut Korrikari harrera egiten lagundu diezadan.

# Korrika Zaldibarren eta Mallabian



# Korrika: ibilbidea Durangaldean zehar

## Martxoak 20

<b>Zaldibar</b>		<b>Eitzaga</b>	9:15:26	<b>Santa Marina</b>	9:33:29
<b>KM-22-Aixola</b>	8:54:00	<b>Goierri bidea</b>	9:20:01	<b>Areitio gaina</b>	9:40:30
<b>Aixolako urtegia</b>	9:02:41	<b>Mallabia</b>		<b>Mallabiabarren</b>	9:47:00
<b>Aixola auzoa 5</b>	9:06:01	<b>Goierri bidea</b>	9:26:37	<b>Mikel Zarate</b>	9:51:50

## Martxoak 22

<b>Zornotza</b>		<b>Zengotitabengoa</b>	20:00:33	<b>Murutatorre</b>	22:15:38
<b>BI-725 KM 20</b>	17:39:45	<b>Zengotitabengoa</b>	20:07:04	<b>Frai Juan Zumarraga</b>	22:22:09
<b>BI-725 KM 21</b>	17:46:15	<b>Elorrio</b>		<b>Galtzarreta kalea</b>	22:28:40
<b>San Pedro kalea</b>	17:52:39	<b>BI-3321 KM 37</b>	20:13:43	<b>Tabira Etxea ingurua</b>	22:35:10
<b>Nafarroa kalea</b>	17:59:00	<b>BI-3321 KM 38</b>	20:20:13	<b>Izurtza</b>	
<b>Gane auzoa</b>	18:05:30	<b>BI-3321 KM 39</b>	20:26:45	<b>BI-623 KM 31</b>	22:40:38
<b>N-634 KM 90</b>	18:12:01	<b>BI-3321 KM 40</b>	20:33:16	<b>Mañaria</b>	
<b>N-634 KM 89</b>	18:18:32	<b>Erreka kalea, 6</b>	20:39:59	<b>BI-626 KM 32,3</b>	22:49:05
<b>N-634 KM 88</b>	18:25:02	<b>Ibaikua kalea, 2</b>	20:46:30	<b>BI-626 KM 33</b>	22:55:36
<b>N-634 KM 87</b>	18:31:32	<b>San Fausto kalea</b>	20:53:00	<b>BI-626 KM 34</b>	23:02:07
<b>N-634 KM 86</b>	18:38:02	<b>San Agustin BI-3331 KM 37</b>	20:59:32	<b>BI-626 KM 35</b>	23:08:37
<b>Iurreta</b>		<b>Atxondo</b>		<b>BI-626 KM 36</b>	23:15:09
<b>Arriandi N-634 KM 84</b>	18:44:41	<b>BI-3336 KM 44</b>	21:04:11	<b>BI-626 KM 37</b>	23:21:39
<b>N-634 KM 83</b>	18:51:12	<b>BI-3336 KM 45</b>	21:10:51	<b>BI-626 KM 38</b>	23:28:13
<b>N-634 KM 82</b>	18:57:42	<b>ARTIA BI-3336 KM 45</b>	21:17:21	<b>Abadiño - Urkiola</b>	
<b>N-634 Bidebarrieta</b>	19:04:13	<b>Abadiño</b>		<b>BI-623 KM 39</b>	23:34:44
<b>N-634 KM 81</b>	19:10:43	<b>BI-3336 KM 47</b>	21:24:02	<b>BI-623 KM 40</b>	23:41:17
<b>Abadiño</b>		<b>BI-3336 KM 48</b>	21:30:32	<b>BI-623 KM 41</b>	23:47:47
<b>Matieta N-634 KM 80</b>	19:18:49	<b>Solozabal kalea</b>	21:37:05	<b>BI-623 KM 42</b>	23:54:20
<b>Zubibitarte 14</b>	19:25:22	<b>BI-732 KM 49,1</b>	21:43:36	<b>BI-623 KM 43</b>	0:00:50
<b>Elorriagazar</b>	19:31:53	<b>Durango</b>		<b>Otxandio</b>	
<b>Berriz</b>		<b>BI-732 KM 50</b>	21:49:44	<b>CF-323 Errepidea</b>	0:07:28
<b>N-634 KM 78,50</b>	19:40:58	<b>Zeharmendieta</b>	21:56:14	<b>CF-323 Errepidea</b>	0:12:40
<b>N-634 Eitua industriagunea</b>	19:47:31	<b>Laubideta, 6</b>	22:02:38	<b>Ospitale kalea</b>	0:24:22
<b>N-634 San Antonio</b>	19:54:03	<b>San Agustin, 10</b>	22:09:08	<b>Olaetako bidea</b>	0:29:34

## Abadiño

Martxoak 22, barikua

**16:30**etatik aurrera **Berton Bertoko askaria** umeentzat. Ondoren, **dantza emanaldia**. Traña-Matienan.

**20:00** Burgerrak Zelaietan.

**20:00 - 23:30** Eingo Taldearekin erromeria.

Martxoak 24, domeka

**9:00** autobusa Baionara. Zelaietan.

**9:15** autobusa Baionara. Traña-Matienan.

**19:30** Baionatik buelta.

## Atxondo

Martxoak 22, barikua

Goizean zehar **Korrika txikia**

**18:30** Kalejira 'Iraunkorrek' Txarangarekin

**21:02** Badator Korrika

**21:30**etatik aurrera **Herri Afaría frontoian**. Ostein, **DJk** Gaztetxean

**23:00**, DJk Gaztetxean

## Berriz

Martxoak 22, barikua

**11:00** Korrika Txikia.

**18:15** Diskorrika. Olakueta plazan

**19:40** Korrika Berrizen

**20:00 - 21:00** ISK&BILA txaranga

Apirilak 11, eguena

**11:00** Bizkarsoro (DBHko ikasleentzat eta AEK-ko ikasleentzat)

**19:00** Bizkarsoro (edonorentzat)

## Durango

Martxoak 22, barikua

**17:30** Aurpegi margoketa eta puxika tailerra. Otamotzena auzo elkarte

**17:45** Igel txapelketa. Otamotzena auzo elkarte

**18:30** Triki poteoa Otamotzena auzoko tabernetatik

**19:00** Bertso saioa: Sustrai Colina, Iruri Basagoiti eta Erika Lagoma. Gai jartzailea: Unai Iturriaga. Otamotzena auzo elkarte

**19:45** DJ Track-a: Andra Marin hasita.

**20:00** Korrikako argazkia: Andra Marin

**21:30** Denok Korrikara!

Martxoak 24, domeka

**9:15** Autobusa Baionara. Madalenako autobus geltokian

**19:00** Baionatik buelta

## Elorrio

Martxoak 22, barikua

**11:00** Bizkarsoro. (DBHko ikasleentzat) Arriola Kultur Aretoan

**14:30** Korrika txikia

**15:00** Txokolatada plazan

**18:30** Diskofesta, DJ Kaktus. Herriko plazan

**18:30 - 20:00** Fanfarrixo herrian zehar

**20:15** Korrikari ongi etorria Miñotan

Martxoak 23, zapatua

**20:00** Baginaren bakarrizketak. Arriola Kultur Aretoan

Martxoak 24, domeka

**9:00** Autobusa Baionara. Betsaide aurreko autobus geltokia

**19:00** Baionatik buelta

## Garai

Martxoak 22, barikua

**21:20** Garaiko Udalak lekukoa eramango du Abadiñon

**19:30** Olakuetako aparkalekuan, Etorri Trumoitte Kultur Alkarteko kilometrorra

## Iurreta

Martxoak 22, barikua

**11:00** Korrika txikia

**17:45** Iurretako plazan batuko gara Korrikarako prestatzeko

**18:44** Korrika Iurretan sartuko da

**19:00** Burrumba elektrotzaranga. Plazan

**19:40** Koreografia. Plazan

**19:50** Plazatik kaskora Burrumba elektrotzarangarekin

**20:00**etatik aurrera Euskolabel oilasko pintxoak.

## Izurtza

Martxoak 22, barikua

**20:30**etatik aurrera pintxopotea eta DJ EK Ramirez

**22:15** Denok gure kilometrorra

## Mañaria

Martxoak 22, barikua

**20:30** Rakata punk elektrotzaranga

**23:00** Korrika

**23:30** Xabi Solano eta Zigor DZ

## Otxandio

Martxoak 22, barikua

Egunean zehar, Korrika txikia, dokumentala, kale girotzea, korrika zuzenean, pelota partiduak, afari merienda herrikoia, AIKO taldea, Korrika Otxandiotik

## Zaldibar

Martxoak 24, domeka

**9:00** Baionara autobusa. Udaletxeko plazan

**18:30** Baionatik buelta.

## Zornotza

Martxoak 22, barikua

**17:00** Mamiki batukada. Herriko kaleetan

**20:00** Almazenean antzezlan. Aretoan

Korrika pasatu ondoren, Diskorrika familientzako musika

Martxoak 24, domeka

**8:00** Baionara autobusa. AEK euskaltegian

**19:30** Baionatik buelta.





## 'Las maravillas del mundo'

IKUSKIZUNA BERRIZ :: Otsailak 22

### Munduko zazpi mirarietan zehar bidaiatzeko gonbita

David Segura konpainiak familia osoari zuzenduriko dantza ikuskizuna egingo du, gaur, Berrizko Kultur Etxean. David Segurak eta Pepa Martinek bidaia berezia egingo dute taula gainean. Hain zuzen ere, munduko zazpi mirariak bisitatzeko bidaiari ekingo diote. Helburua bat da: euren lagunak utziriko eskuizkribua argitu eta ulertzea. Atzera eginez, bizkortuz, eta denboran

geldotuz egingo duten bidaia luze baten ondoren, zientziak azalpen formal bat ematerik izan ez duena argitzea lortuko dute: munduko zazpi mirariak bakar batean biltzen direla.

*Las maravillas del mundo* dantza ikuskizunak denboran barrena eginiko bidaia erakutsiko du, ikuslea bidaia horretara gonbidatuta. Emanaldia 17:00etan hasiko da.

### Martxoaren 22an

#### IURRETA ipuinak

'Haizeak daramana eta dakarrena' (Saioa

Aizpurua), 17:00etan (3-5 urte) eta 17:45ean (6 urtetik gora), bibliotekan.

'Hemendik eta handik hartutako ipuinak' (Saioa Aizpurua), 19:00etan.

Helduentzako saioa.

**DURANGO kontzertua**  
Tabira Musika Banda + Musika Eskolako Banda

Gaztea, 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

#### IURRETA irteera

Bizikletan irteera

Otxandiora, 09:00etan.

Iurreta Txirindulari Elkarteak antolatuta.

### Martxoaren 24an

#### DURANGO bisita gidatua

Bonbardaketaren aztarnak ezagutzeko bisita gidatuak,

10:30ean (gaztelaniaz)

eta 12:30ean (euskaraz),

Kurutzesantutik. Izen ematea: gerediaga@gerediaga.eus

#### IURRETA irteera

Bizikletan irteera Mungia, 09:00etan.

Iurreta Txirindulari Elkarteak antolatuta.

### Martxoaren 22ra bitartean

#### ZORNOTZA erakusketa

'Luminiszentek.

Emakumeen aurkako

indarkeria ikusezinak,

eta erresilientzia zenbait

historia', Zelaieta zentroan.

### Martxoaren 22tik 24ra bitartean

#### DURANGO azoka

Berdeago Azoka, goizean

eta arratsaldean, Landako

Gunean.

### Martxoaren 23an

#### BERRIZ ipuinak

'Habiako ipuinak'

haurrentzako kontaketa,

12:15ean, Kultur Etxean.

#### BERRIZ kontzertua

Sara Zozaya, 19:00etan,

Kultur Etxean.

### Martxoaren 27tik 29ra bitartean

#### DURANGO ikuskizuna

XXXI. Durangoko Pasiñoa,

21:00etan, Santa Ana plazan.

### Martxoaren 28an

#### ELORRIO bisita gidatuak

'Basilikaren barrenak',

11:00etan (euskaraz).

'Los tesoros de Argiñeta',

17:00etan (gaztelaniaz). Izena

eman behar da ( 946 82 01 64 / 688 77 62).

### Martxoaren 29an

#### ELORRIO bisita gidatuak

'Gurutzeen bidea',

11:00etan (euskaraz).

'Argiñetako altxorrak',

17:00etan (euskaraz). Izena

eman behar da ( 946 82 01 64 / 688 77 62).

### Martxoaren 30ean

#### DURANGO bisita gidatuak

Aste Santuko doako

bisita gidatuak, 10:30ean

(gaztelaniaz) eta 12:30ean

(euskaraz). Aurretiaz izena

eman behar da, Turismo

Bulegoan.

#### ELORRIO bisita gidatuak

'Los pilares de la basilica',

11:00etan (gaztelaniaz).

'La villa', 17:00etan

(gaztelaniaz). Izena eman

behar da ( 946 82 01 64 /

688 77 62).

### Martxoaren 31n

#### DURANGO M31

Bonbardaketaren ondorioz

hildakoak gogoratzeko

lore eskaintza, 08:00etan,

hilerrian.

ANBOTOk agendan ezer iragarri

gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo

deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

## Zinema

### :: Berriz

KULTUR ETXEA

• **La tierra prometida**

barikua 22: 19:30

domeka 24: 19:00

### :: Durango

ZUGAZA ZINEMA

• **La familia Beneton**

barikua 22: 18:30 / 21:00

zapatua 23: 17:00 / 19:15 / 21:30

domeka 24: 17:15 / 19:30

astelehena 25: 18:00 / 20:15

martitzena 26: 18:00 / 20:15

• **Cazafantasmas: Imperio helado**

barikua 22: 18:30 / 21:00

zapatua 23: 16:45 / 19:15 / 21:30

domeka 24: 17:00 / 19:30

astelehena 25: 18:00 / 20:15

martitzena 26: 18:00 / 20:15

eguaztena 27: 19:00

• **Los niños de Winton**

barikua 22: 18:30 / 21:00

zapatua 23: 19:15 / 21:30

domeka 24: 19:30

astelehena 25: 18:00 / 20:15

martitzena 26: 18:00 / 20:15

eguaztena 27: 19:00

• **Kung Fu panda 4**

zapatua 23: 16:45

domeka 24: 17:00

• **Rigoletto (opera)**

eguaztena 27: 19:00

### :: Elorrio

ARRIOLA ANTZOKIA

• **El color púrpura**

domeka 24: 20:00

astelehena 25: 20:00

• **Patrick**

domeka 24: 17:00

### :: Zornotza

ZORNOTZA ARETOA

• **El color púrpura**

zapatua 23: 20:00

domeka 24: 20:00

astelehena 25: 20:15

• **Museoaren zaindariak**

zapatua 23: 17:00

domeka 24: 17:00

## “Erronka berri bakoitzari nola aurre egiten diodan, horretan dago koherentzia”

Sara Zozaya abeslari donostiarrak kontzertua emango du Berrizko Kultur Etxean, zapatuan, martxoak 23, 19:00etan

**MUSIKA** • ARITZ MALDONADO

**Iazko urte amaieran, Sara Zozaya artista donostiarrak bere lehenengo lan luzea kaleratu zuen, 'Nara'. Harrezkero, lan hori aurkezteko biran murgilduta dago. Zapatuan, Berrizko Kultur Etxean kontzertua emango du, 360 graduko formatuan. "Horrelako kontzertu bat Berrizen bertan ikusi nuen lehenengoz, Viva Belgradoren kontzertua, eta ikusle modura esperientzia itzela izan zen. Beste modu batera bizi izan nuen kontzertua, eta ordutik beti izan dut gogoa musikari modura horrelako zerbait probatzeko", adierazi du abeslariak. Bilboko Kafe Antzokian, Donostiako Dabadaban eta Gasteizko Jimmy Jazzen aurkeztu du 'Nara' hile hauetan, Asier Renterriagaz, Antton Goikoetxeagaz eta Paule Bilbaogaz batera.**

**Abestiek geruza nahikoa dute. Gatz egin zaizue zuzenekora moldatzea?**

Lokalean prestatzen duzuna zuzenekoan jotzea ez da erraza izaten, bai nerbioengatik, bai teknikoki ez zaudelako ohituta. Orain askoz ere puntu hobean sentitzen naiz; kontzertu asko eman ditugu, areto garrantzitsuetan gainera, eta horrek lasaitasuna ematen dizu, eta kontzertua disfrutatzeke aukera gehiago ere bai. Hala ere, kontzertu bakoitza mundu bat da, eta onenarikoa Oñatiko gaztetxean eman genuela uste dut. Behar bada teknikoki ez du antzoki batek izan

dezakeen oinarria, baina gero, han sortzen den giroa itzela da. Uste dut Berrizen horrelako zerbait gerta daitekeela, eta horregatik gaude gogotsu.

**Hainbat urte daramazu musikagintzan, baina orain arte ez duzu lan luze-rik kaleratu. Zergaitik orain?**

Ez da horrela erabakitako zerbait izan. Gauza bat baino ez neukan argi, Jon Agirrezabalaga *Zabala*-gaz lan egin nahi nuela; hortik abiatuta, denak osotasun bat hartu du. Abestiak hartu, eta produkzio lanarekin eta nire ahotsarekin koherentzia bat eman diogu guztiari.

**Oso berba zuzenak edo gordinak idazten dituzu. Hainbeste zabaltzeak bertigoa ematen dizu?**

Uste dut nahiko inkontzientea naizela horrekin; sortzen duzun momentua eta kaleratzen duzuna oso desberdinak dira, baina gauza bera erakusten ari zara. Nik bakarrik sortu ohi dut, eta azaltzen ari naizen sentimendu horiek ez dago makillatzerik gero kaleratzera-koan. Idatzi dudana hor dago eta kito; egia esan, horri ez diot buelta gehiegirik ematen eta uste dut horregatik ez ditudala nire abestiak gehiago entzuten kaleratze prozesuan. Kantak egin ahala entzuten ditut, baina kaleratu eta gero publikoarenak dira, eta horregatik ez dut bertigorik.

**Bira honetan Paule Bilbao batu da proiektura. Zelan beragaz lanean?**



Uste nuen baxu-jotzaile bat ekarri behar genuela taldera, eta, gainera, emakumea izatea nahi nuen. Hori argi nuen, eta Paule laguna izateak ere ilusioa egiten zidan, badakidalako bere sentsibilitatea zein den, badakidalako nire musika ulertzen duela, eta, beraz, nahiko erraza izan zen berarekin akordatzea. Logistikoki ez zen hain erraza izan, Madrilen bizi delako, eta, alde horretatik, entseguak egitea nahiko zaila izan

da. Baina oso erraz egin du, eta zuzenekoari beste intentsitate bat eta beste dimentsio bat ematen dizkiola uste dut, eta bere musikaltatea ekarpen handia da.

**Oraintsu Viva Belgradogaz kolaboratu duzu, Low taldeko Mimi Parkerren omenezko bilduman ere parte hartu duzu, eta proiektu askotan aritu zara. Gustuko duzu jende desberdinagaz lan egitea eta musika estiloen artean jauzi egitea?**

Raparen munduan hasi nintzen,

gero reggaea ezagutu nuen, metala etorri zen gero... Satellite baten modukoa naiz. Tribu asko ezagutzen ditut eta lagun asko ditut tribu desberdinetan. Bakoitzaren ekarpena baloratzen dut. Gauza desberdinak egiten ditut, baina, era berean, nik gauza berdina egiten dut denbora guztian. Orduan, erronka berri bakoitzari nola aurre egiten diodan, horretan dago koherentzia, nire tokitik egite horrek zentzua du.

## Martxoaren 27an, 28an eta 29an egingo dute Durangoko Pasiñoaren XXXI. edizioa

Sarrerak salgai daude Durangoko Pasiñoaren webgune ofizialean, El Arco tabernan eta 663 402 525 telefono zenbakira deituta; emanaldiak 21:00etan izango dira

**ANTZERKIA** • ARITZ MALDONADO

Durangoko Pasiñoaren XXXI. edizioa aurkeztu zuten astelehenean. Azken entseguetan murgilduta daudela, Izaskun Astondoak azaldu du "pozik eta gogotsu"-daudela obra aurkezteko; bera izango da Maria aurtengo edizio honetan, eta Markel Ganboa Jesus. Lantalde osoaren jarduna nabarmendu dute: "Jesus eta Maria dira protagonistak, baina

parte hartzen dugun 120 lagun guztiak barik ezingo litzateke egin". Markos Echartek zuzenduko du antzezlan, beste urte batez. Erronka handia dela dio, eta gogotsu dagoela. "Geldialdi gogor baten ondoren, gogor lan egin dugu berriro ere plaza honetan batzeko; pasioz egiten dugu Pasiñoa, bidean aldats gora batzuk ere agertzen diren arren", adierazi du. Juan de Iciar kultur

elkartek Durangoko Pasiñoa antolatzen duen XXXI. aldia da eta elkarteko kideek azpimarratu dute ekimena guztiz errota dagoela herrian.

**Sarrerak salgai**

Emanaldietarako sarrerak salgai daude jada, sei euroan. Ekimenaren webgunean, Durangoko El Arco tabernan eta 663 402 525 telefonora deituta erosi daitezke.



Udaleko eta Juan de Iciar kultur elkarteko kideak Pasiñoaren aurkezpenean.



Jesus Mari Arruabarrena, Mireia Elkororibe, Garazi Arrizabalaga eta Beñat Gaztelurrutia.

## Espainiako gerrak Durangaldean utziriko aztarnak museoan ikusgai

Gerediaga elkarteak 'Gerraren zantzuak Durangaldean' erakusketa muntatu du, Durangoko Udalaren laguntzagaz; Jesus Mari Arruabarrenaren 53 argazki batu dituzte bertan

**ARGAZKILARITZA • ARITZ MALDONADO**

Martxoaren 31ko bonbardaketaren inguruko ekitaldiak antolatzen hasi dira Durangon. Horiatariko bat *Gerra zantzuak Durangaldean* erakusketa da. Espainiako gerrak Durangaldean utziriko aztarnei argazkiak atera dizkie Jesus Mari Arruabarrena argazkilariak; guztira, 53 argazki eta testuk osatzen dute Durangoko Arte eta Historia museoan ikusgai dagoen erakusketa. Gerediaga elkarteak prestatu du erakusketa, Durangoko Udalaren laguntzagaz, eta gerrari zuzenean loturiko argazkiak daude bertan (azpiegitura, armak,...), bonbardaketek utziriko aztarnak

erakusten dituztenak, hildakoen presentzia dutenak (oroigarriak zein gorpuzkiak) eta oroimen ekitaldietakoak. "Erakusketa hau aukera paregabea da gure tokiko historiari buruz hausnartzeko eta gerraren izugarrikeriak bizi izan zituztenen oroimena ohartzeko", azaldu du Mireia Elkororibe Durangoko alkateak.

Erakusketan Durangaldeko herri guztiak agertzen direla nabarmendu du Garazi Arrizabalaga Arte eta Historia museoako zuzendariak. "Ez bonbek ez gerrak ez dituzte mugak ikusten, eta herri guztietan eragin zuten", azaldu du prentsurrekoan. Bestalde, Arruabarrenak azaldu du

argazkiak 2019tik hona egindakoak direla. "Argazkiek garrantzi testimoniala dute, batez ere, eta idatzitako hitzek testuinguru osoa argitu gura dute".

### Bisita gidatuak

Erakusketaz gainera, bisita gidatu bi egingo ditu Arruabarrenak berak. Lehenengoa apirilaren 4an izango da, euskaraz; bigarrena apirilaren 18an izango da, gaztelaniaz; 19:00etan hasiko dira biak. "Hau ez da urruneko gerra bat izan, bizi garen lekuan egondako gerra bat baino. Orain 80 urte izan arren, uste baino lorratz gehiago dago gure inguruan", gehitu du.

## 'Heldu kulturari Zornotzan' topaketak egingo dituzte

Zapatuan egingo dute Zornotzako elkarte eta eragileen arteko topaketa, 12:00etan, Zelaieta zentroan

**ZORNOTZA • A.M.**

Zornotzako kultur elkarte eta eragileen arteko topaketa, zapatukoa, "inflexio puntu bat" izatea gura dute Zornotzako Udaleko, Abes Kimuko eta Musika Bandako kideek. Ekitaldia 12:00etan hasiko da, proiektzio batez, eta kulturaren definizioa lantzea dute helburu, herri kulturgintza eta kultur sarea perspektibagaz lantzea, Joseba Lopezortega Jaurlaritzako Kultura Kontseiluko kideagaz batera; Lopezortega zornotzarra da. Aritz Labrador Zornotzako Musi-

ka Bandako zuzendariaren berbetan, zapatukoa aukera ona izango da herriko kultur elkartearen jarduna ezagutzeko. "Bakoitzak egiten dituen jarduerak gertutik ezagutu gura ditugu, elkarri zelan lagundu diezaiokegun aztertu, eta, batez ere, ezagutza partekatzeko plataforma bat eraiki", azaldu zuen martitzeneko prentsurrekoan. Ana Saratxaga Abes Kimuko abesbatzako kideak hausnartarako aukera dela nabarmendu zuen: "Zelan definituko genuke Zornotzako giro kulturala?".



Koldo Bilbao, Ainhoa Salterain, Ana Saratxaga eta Aritz Labrador.

## Gai librean

### Ihes

Orain dela ez urte asko, azken krisi ekonomikoaren ondorioz, Euskal Herrian eta Espainiako Estatuan goi-mailako ikasketak egiten ari ziren edo bukatu berri zituzten gazteek Europako beste herrialde batzuetan aurkitu zuten ikasten ari diren sektoreko lan munduan karrera egiteko irtenbidea. 'Garun ihesa' deitu zioten fenomeno horri. Lehenago eta geroago ere existitu da, eta gaur egun hainbat post-doktoretzat gertatzen ari da. Gertuko bati entzun izan diot derrigorrezkoa izaten dela ikerketa munduan kanpora irtetea, ikerketa munduan aurrera segi gura izanez gero. Bada, sorkuntzan, antzezpenean batez ere, antzeko zerbait gertatzen dela iruditzen zait.

Aktore mordo bat aritu da eta dabil AP-1 errepidean barrena, gora eta



Igor Galarza Intxausti  
Kazetaria

behera proiektu txikienetik aukera handienaraino eskura izan ditzaketen lan guztiak pilatzen. Nahiz eta pilatu, gutxi pilatzen diren. Kulturaren sektore gehienetan baino lan egun gutxiago dago, baita lan gutxiago ere. Eta, aldiz, kultur sorkuntzarik barik ez ginateke ezer. Euskal Herrian euskarazko kultur mugimendu handia dago zorionez (handia, bai, baina ez soberakoa), baina antzezpenean atzean geratzen ari da, musikaren, literaturaren edo bertsolaritzaren aldean. Eta ez da Euskal Herrian errorik ez duelako, ez da aktore falta bategaitik, ezta kalitategaitik ere... uste dut denok dakigula erantzuna.

Arazoak adibide asko ditu, azkena 'Toure detektibea' telasailagaz gertaturikoa. Kasu horretan, grabaketak Euskal Herrian egin baziren ere, telesaila osorik gaztelaniaz grabatu zen,

RTVE-k lanean kolaboratu zuelako, besteak beste. Halere, EITBk harrotasunez erakutsi du sortutakoa, "primizian eta euskaraz" argitaratutako zozker legez... bada, bai, euskaraz eskuragarri dago PRIMERAN plataforman... bikoiztuta, baina. Jon Arretxeren liburua euskaraz egina, euskal aktoreak, Euskal Herrian grabatu behar... eta gaztelaniaz. Orduan konturatzen zara berdin diola AP-1a zenbat aldiz hartu behar duten aktoreek, berdin diola zenbat lan dagoen; euskal garunen ihesaren beldur ginen sarri, bertako aktore onenek Euskal Herrian lan egiteari utziko ziotelakoan (Itziar Ituño kasu). Orain berdin dio, orain bertan ere gaztelaniaz egitera behartuta daude. Eta euskal kultura sustatzen ari direla esango digute. Ihes egin die aukera batek, beste behin. Ez diezagutela garuna jan...

# Eskualdeko jokalarien presentzia gutxituz joan da Athleticek 2009tik hona jokatu dituen Errege Kopako bost finaletan

2009, 2012 eta 2015eko finalen artean Durangaldeak lau ordezkari izan zituen zelaian. Harrezkero jokatu diren final bietan ez da eskualdeko jokalaririk egon zelaian, eta apirilaren 6ko hitzorduan ere ez da egongo



Athleticeko jokalariek zelai erdian batuta, Kopako partidu batean. ATHLETIC CLUB

## FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Athleticek, 15 urtean, Errege Kopako seigarren finala jokatu du apirilaren 6an. Durangaldeko jokalaririk bako finala izango da eta ez da salbuespena, apurka gutxituz joan delako hemengo jokalarien presentzia Kopako partidu handian. 2009tik 2015erako hiru finalen artean Durangaldeko lau jokalarit ziren. Harrezkero, ez da eskualdeko jokalaririk izan zelaian.

2009ko aldia berezia izan zen gainerakoekin alderatuta, Athleticek 24 urte zeramatzalako Kopako finalik jokatu barik. Koikili Lertxundi otxandiarrek eta Fernando Amorebieta iurretarrak osorik jokatu zuten partidu hura. Amorebietak 2012ko finala ere jokatu zuen, berriro ere hasierako hama-

kakoan zelairatuta. Athleticek hiru urte geroago jokatu zuen hurrengo finala, 2015ean. Xabi Etxeita zornotzarrak partidu osoa jokatu zuen. Bestalde, Ander Iturraspe abadiñarra azkenengo ordu laurdenean zelairatu zen, Mikel Rico ordezkatuta. Sasoi hartan, Iturraspe ohikoa zen hasierako hamaikakoan, baina aste bi lehenago Europa Leagueko finala hasieratik jokatu, aulkian hasi zuen Errege Kopako.

2020ko eta 2021eko finaletan —biak 2021ean jokatu ziren, pandemiagaitik— ez zen eskualdeko jokalaririk izan zelaian. Jon Morcillo zornotzarrak aulkitik jarraitu zuen bigarren finala, Bartzelonaren kontrako. Hain zuzen ere, iazko abuztuan Morcillo Athleticek utzita Amorebietara joan zenetik, talde zuri-gorrian ez dago eskualdeko ordezkariarik.

Zelaian ezin izan zutena harmailetan ospatu gura dute. Koikili eta Etxeita Athleticeko bazkideak dira eta finalerako sarrerak egokitu zaizkie. Lehenengoz biziko dute Athleticen Kopako final bat harmailetan.

## “Eskarmentua eta irabazteko gosea osagai onak dira finalaren aurrean”

Koikili Lertxundi, 2009ko finalista, itxaropentsu dago apirilaren 6ko finalari begira



**Aspaldian final dezente jokatu du Athleticek, baina susmoa dut 2009koa denetan bereziena izan zela. Zelan gogoratzen dituzu finalaren aurreko egunak?**

Otsailean sailkatu ginen eta maiatzean jokatu genuen finala. Hiru hilabete izan genituen momentua gozatzeko, imajina ezazu. Oso modu berezian bizi izan genuen, azkenengo finaletik urte asko joan zelako eta gure belaunaldia horrelakorik bizi barik zegoelako.

**Halakoetan gatxa izan behar du kanpoko zarata guztia alboratu eta zentratu beharrekoan bakarrik zentratzeak.**

Bai, gatxa da eta gure kasuan ezinezkoa ere izan zen. Final hura behin ikusi dut errepikatuta, eta partidu hasieran kamera jokalarion aurretik pasatu zenean denok zurbil geundela ikusten da. Alda getatik tunelerako bidean ere halako urduritasun bat igartzen nuen. Gero, egia esan, partidua oso ondo eta kontzentratuta hasi

genuen, baina hasi aurreko momentuetan estu geunden. Igartzen zen ez geundela ohituta horrelako partiduak jokatzerako. Halako egoera bat kudeatzea ez da erraza. Zorionez, orain eskarmentu handiagoa dugu. Kopako aurreko bost finalak galdu izanaren ernegua ere ikusten dut. Eskarmentua eta irabazteko gosea osagai onak dira finalari aurre egiteko.

**Zuek historiako Bartzelonarik onenarik izan zenuten aurkari. Mallorca talde apalagoa da. Inor izatekotan, Athletic da irabazteko faborito. Faborito izatea norberaren kontrako izan daiteke?**

Errespetu guztiagaz esanda, ikusi orduko Bartzelona eta ikusi oraingo Mallorca. Alde handia dago. Athletic hau eta orduko ere ez dira berdinak. Gu ez ginen momenturik

onenean heldu finalera. Finalera sailkatu ginenetik finala jokatu arteko ia partidu guztiak galdu genituen, atera kontuak. Orain, taldea sasoi puntu onean helduko da finalera. Guk bizi izan genuen antsietate puntua gure kalterako izan zen, baina oraingoa onerako izan daitekeela esango nuke. Baina, jakina, final bat da eta sekula ere ez jakiten zer gertatu daitekeen.

**Non ikusiko duzu finala?**

Sevilla! Zozketan finalerako sarrerak egokitu zait. Lehenengoz biziko dut harmailetan, edozein zalaren moduan. Errepasoa egin da, Superkopa irabazi genuenean Bizkaia Irratian nengoan. 2020ko eta 2021eko Kopako finaletan Radio Euskadin egon nintzen. Oraingoa beste edozein zalaren moduan gozatuko dut.

## “Athletic Hiria jendez beterik ikustea hunkigarria izan zen guretzat”

Xabi Etxeitak titular jokatu zuen 2015ko finala; oraingoa zale bat gehiago izango da harmailetan



**Zelan gogoratzen dituzu 2015eko finalaren aurreko egunak?**

Aurreko astea ilusioaren astea izan zen. Lagunak, senitartekoak... denak bidaia prestatzen zeuden, ilusio itzelagaz, eta jokalariek ere berdin. Azkenengo hiru-lau egunak oso intentsoak izan ziren. Bagenekien Bartzelona handi baten kontra jokatu genuena. Gainera, finala Bartzelonan bertan zen. Dena kontra izanda, finala irabazteko aukerak motibazio estra bat eman zigun.

**2009ko finala ez zenuen jokatu, baina talde hartako jokalaria izan zinen. Aurreko egunak zelakoak izan ziren?**

Desberdina izan zen. 24 urtean lehenengo finala zuen Athleticek. Gabarraren irudiak ipintzen zizkiguten, erreka ingurua jendez beteta. Hori errepikatu genezakeela sentitzea berezia zen guretzat. Gogoan dut finala jokatu baino hiru-lau egun lehenago joan ginela Madrilerako, kon-

tzentratzera. Inguruko giro horretatik aparte egon ginen azken egunetan. Gero, Athletic Hiria gunea zalez beterik ikustea oso hunkigarria izan zen guretzat.

**Izarrez beteriko Bartzelona hark ez du zerikusirik Mallorcagaz. Baikortasuna igarri duzu zaleengan?**

Bai, inguruan baikortasuna ikusten dut, partidu hori irabazita balego lez. Baina futbol profesionala barrutik bizi izan dugunok badakigu hori ez dena horrela. Mallorcak badu ahalmena partidu irabazteko. Final batean edozer gertatu daiteke. Athleticek aurreko jokatzen dabilen moduan jokatzen badu faborito izango da, baina jakinda aurkariak ere bere baliabideak dituela irabazteko.

**Non egon daiteke finaleko gakoa?**

Mallorca oso talde ordenatua da, eta defentsan gogorra. Aurrelari indartsu bi dituzte eta geldikako jokaldietan arriskutsuak dira. Athleticek urtean zehar egunikoa errepikatu behar du: erritmo handia eman partiduari, intentsitatea sartu. Hegaletan jokalarit trebeak ditu eta min handia egin dezake Nico Williamsegaz eta beste batzuekin.

**Non biziko duzu finala?**

Athleticeko bazkidea naiz; zortea izan dut eta zozketan sarrera egokitu zait. Finaleko egunean partidu neukan Amorebietagaz, baina azkenean barikura aurreratu digute eta Sevillara joan naiteke. Lehenengoz biziko dut zaletu lez harmailetan.



Biharko Izarrak txapelketako antolatzaile, pilotari eta babesleak astlehenean Trabakua Behekoa jatetxean eginiko aurkezpenean.

## Urko Bullon eta Aingeru Bernaola Biharko Izarrak txapelketan arituko dira

Eskualdeak ordezkari bi izango ditu afizionatuetako torneorik garrantzitsuenetarikoa

### PILOTA • JOSEBA DERTEANO

Afizionatu guztiek jokatu gura duten Biharko Izarrak pilota txapelketa laster hasiko da. Mallabiko torneoak ondo irabazita dauka bere fama, promesarik onenek jokatzeko dutelako bertan eta txapelketan jokatu duten askok profesioletarako saltoa ematen dutelako. Horregaitik, poztekoa da Durangaldeak ordezkari bi izatea aurten; iaz bat ere ez zuen izan. Urko Bullon (Zornotza, 2005) eta Aingeru Bernaola (Mañaria, 2004) dira pilotari biak.

Bullonek karanbola bati esker parte hartuko du Mallabian.

Laster profesioletan debutatuko duen Arkaitz Gabirondo gipuzkoarrik libre utziriko tokia beteko du. "Ilusio handia egiten dit hain txapelketa inportantean parte hartzeak. Entrenatzeko eta hobetzen jarraitzeko motibazioa bat da", adierazi du Berrizen bizi den zornotzarrik. Oraintsu Euskal Ligako finala jokatu du, Xabi Rekaldegaz bikotea osatuta. Finala gutxigaitik galdu arren (20-22), liga bikaina egin dute.

Aingeru Bernaolak gorakada nabarmena egin du azken urtean eta ez da oharkabean pasatu. Iaz Abanca-Diario Vasco eta Olazar

txapelketak jokatzeko deitu zioten eta aurten Biharko Izarrak estreinatuko da. "Neure lanagaz gustura geratzea dut helburu, eta gero, sailkatzea lortzen badut, ba, oraindino hobeto", adierazi du.

Gizonen binakako txapelketa apirilaren 4an hasiko da. Finala ekainaren 6an izango da. Emakumeen lau eta erdiko txapelketa ere jokatu da, Enara Gaminde, Amaia Aldai, Miren Larrarte eta Leire Garai pilotariekin. Ligaxka formatuan jokatu dute, apirilaren 8tik maiatzaren 23ra. Jardunaldi guztiak eguenetan izango dira, 20:45ean

## Elorrioko Buskantzak Euskal Kopako Lauko Finala jokatu du asteburuan, Lezon

Zapatu arratsaldean Hirugarren Mailako liderra den Antiguoko taldearen kontra bilatuko dute finalera sailkatzea



Elorrioko Buskantza areto futbol taldea.

### ARETO FUTBOLA • J.D.

Asteburuan areto futboleko Euskal Kopako Lauko finala jokatu da Lezon (Gipuzkoa), eta hantxe izango da Elorrioko Buskantza. Aurkari indartsuen kontra ez dute galtzeko ezer, eta sorpresa emateko prest joango dira elorriarrik. "Maila handiko aurkariak egongo dira, baina gogotsu eta gure onena emateko asmotan goaz", adierazi du Unai Arregi taldeko jokalaririk.

Elorrioko Buskantzak Antiguoko taldearen kontra jokatu du finalerdia, bihar, 16:15ean. Maila bat gorago dabil Antiguoko, Hirugarren Mailan. Ez hori

bakarrik, lider sendoa da gainera: ligako 23 partiduetatik 21 irabazi ditu. Beraz, partidu gatxa izango dute elorriarrek. Beste finalerdia Gernikaren eta Gora Bilbaoren artekoa da. Hauek ere Hirugarren Mailako taldeak dira. Finala domekan izango da, 17:00etan.

Gertatzen dena gertatzen dela, Elorrioko Buskantza harro egoteko moduan dago orain arte eginiko lanagaz. Lauko Finalera sailkatzeko, Santurtzi, Sasikoa Durango —penaltietan— eta Donostiako Martutene Zumardi taldeak kanporatu behar izan ditu, denak Euskal Ligakoak, Buskantzen maila berekoak.

## Jokaldia

### Udaberria

Ziklismoa bere osotasunean bizitzeko urtarorik ederrena udaberria dela beti esan dut. Negua luze egiten zait errepideko lasterketarik gabe, ziklo-krosak hutsune hori leuntzen laguntzen didan arren. Eguzkiaren lasterketarekin hasi genituen emanaldiak duela hamabost egun, abiada hartu dugu eta urrira arte ez gara geldituko. Aste santuan Lizarran ekingo diegu emanaldiei, ondoren Flandriako Tourrarenekin, Euskal Herriko Itzuliarekin eta Paris-Roubaixekin jarraitzeko. Martxo amaiera eta apiril hasiera zirrargarria izango dugu, gure errepideetan munduko ziklista onenak bertatik bertara ikusteko parada izango dugulako: Vingegaard, Evenepoel, Roglic, Pello Bilbao, Mikel Landa... Eguzki berritan



Alfonsito Arrojo Monasterio  
Kirol kazetaria

### Euskal Herriko ziklistak onenen pare dira, gehienak euskaldunak eta harrotasunez agertzen dute beraien jatorria

gaude; klasikoek distira berezia dute, historiaz josita daude den-denak. Herri baten izaera ere islatzen dute lasterketa horiek. Flandriar ziklismoa nola bizi duten ikusteak zirrara sortzen dit. Gu geu ere ez gara atzean gelditzen; errepide bazterrek jendez mukurik ikusteak oilo ipurdia jartzeko modukoa da. Mundu osoan herri gisa agertzeko tresna bakarrenetakoa dugu eliteko kirolean ziklismoa. Hori gutxi ez, eta Euskal Herriko ziklistak onenen pare ari dira, gehienak euskaldunak dira eta harrotasunez agertzen dute

beraien jatorria. Euskaraz mintzo dira eta haurrentzat eredu dira. Idoloak norbere hizkuntzan entzutea ezinbestekoa da erreferente euskaldunak izan ditzaten. Ziklismoa euskaraz ikusi, entzun eta sentitzea ere funtsezkoa dela deritzot gure hizkuntzaren zabalkundean. Arrabola, galga, erripa, aldapa pikoa bezalako hitzak barneratu dituzte haurrek, gazteek, baita erdaldun batzuek ere. Erreferente euskaldunak behar ditugu zentzu guztietan, nahiz eta gure herriko Itzuli handienak huts egiten duen horretan. Ibilbidearen aurkezpen ofiziala gaztelania hutsean egin izanak mintu gintuen (antolatzaileek horren berri badute), norbere herrian atzerritar eta bigarren mailako sentiarazi gintuzten. Ruperren kantak dio "euskaldun izatea zein nekeza den", baina inoiz baino gehiago: Harro Herri.



**ETXETXO**  
INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)



**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



**ISD** Inmobiliaria  
del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
[www.inmoduranguesado.com](http://www.inmoduranguesado.com)  
inmoduranguesado@gmail.com



**Fernando Uribe**  
AGENCIA INMOBILIARIA  
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO  
Tel.: 946 816 423 • [www.fernandouribe.es](http://www.fernandouribe.es)



**IURRETA**  
Eraikuntza berria. 2 eta 3 logelako etxebizitzak. Garajea eta trastelekua barne.  
**256.000€-tik aurrera**



**ERROTARITXUENA**  
95 m2. 3 logela, 2 komun, sukalde jantzia eta egongela. Terraza. Trastelekua eta 2 kotxerentzako garaje itxia.  
**382.000 € C.E.E= D**



**ASK. ETORBIDEA**  
95 m2. 2 logela, 2 komun, sukalde-egongela eta egongela handia. Hegoaldea. 70 m2-ko terraza handia. Garajea aukeran.  
**320.000 € C.E.E= E**



**DURANGO**  
Apartamentua. Erdi berria. Sukaldea eta egongela balkoiarekin. Bizitzen sartzeko moduan.  
**136.000€ C.E.E= F**



**IURRETA**  
60 m2. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Iggogailua. Trastelekua. Bizitzen sartzeko moduan.  
**145.000 € C.E.E= G**



**DURANGO**  
Sukaldea, egongela, 3 logela eta komuna dutzarekin. Bizitzen sartzeko moduan.  
**145.000 € C.E.E= G**

## // ETXEBIZITZAK SALGAI DURANGO

**ASKATASUN ETORBIDEA:** 2 logela, 2 komun eta sukalde-egongela. Terraza handia. Garajea eta ganbara.

**PINONDO:** Logela biko atiko ederra. Sukaldea eta komuna. 50 m<sup>2</sup>-ko lokalarekin batera salgai.

**BARRENKALEA:** Logela bateko apartamentua. Sukaldea, egongela, eta komuna. Trastelekua.

**TABIRA:** 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Oso argitsua.

## BERRIZ

**BERRIZ:** 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta trastelekua.

**BERRIZ:** 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

**ATXONDO:** 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

## //LURSAILAK SALGAI

**TABIRA:** 1.445 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Laua.

**IURRETA:** 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

## //BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

**ABADIÑO:** Etxezurin kokatua. 300 m<sup>2</sup>. Berrizatzeko. Lursailarekin. Ganbara.

**BERRIZ:** Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berrizatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

**BERRIZ:** Eitua auzoan. Baserri ederra. Berrizatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

**ATXONDO:** AXPE. Baserri ederra salgai. Berrizatzeko. Kokapen izugarria

**MAÑARIA:** 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m<sup>2</sup> solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

**MENDATA:** Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berrizatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

## //BULEGOAK ALOKAIRUAN ABADIÑO

30 m<sup>2</sup>-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

## //GARAJE ITXIAK SALGAI

Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

## //LOKALAK ALOKAIRUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

## //LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

**MATIENA:** 460m<sup>2</sup>-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

## www.inmoduranguesado.com



**DURANGO** 90 m<sup>2</sup>  
3 logela  
**KALEBARRIA:** Egongela, sukaldea, despentsa, 3 logela eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. (ekialde-mendebalde-iparraldea) Ergidigunean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. Egoera onean. ITE-a pasatutakoa. Ez ditu berrikuntzak behar.  
**158.700 € C.E.E: G**



**DURANGO** 117 m<sup>2</sup>  
4 logela  
**AMBROSIO MEABE:** (1.991 urtean eraikia). Halla, egongela, sukaldea, 4 logela eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. (ipar-ekialdea) Etxebizitza altua. Argitsua. Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. EGOERA ONEAN. Ganbara eta garaje itxia.  
**319.000 € C.E.E: Bidean**



**DURANGO** 83,2 m<sup>2</sup>  
2 logela  
**ASKATASUN ETORBIDEA:** (1.998. urtean eraikia): Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta 2 komun. 70 m<sup>2</sup>-ko terraza eta patioa. Etxe osoak kanpora ematen du. (hegoaldea) Oso argitsua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. Herriguneko sarrera/irteeratik gertu. Egoera onean. Ganbara barne. Garajearekin + 15.000 €. 2 garajerekin + 32.000 €  
**320.000 € C.E.E: Bidean**



**DURANGO** 93,77 m<sup>2</sup>  
3 logela  
**FRANTZISKO IBARRA:** (2.000. urtean eraikia): 93,77 m<sup>2</sup>. Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du. (ekialde-mendebaldea) Argitsua. Zonalde berdeak eta herriguneko sarrera/irteeratik gertu. Egoera onean. Ganbara eta garaje itxia.  
**335.000 € C.E.E: E**



**MATIENA** 91 m<sup>2</sup>  
3-4 logela  
**ERAIKUNTZA BERRIA:** 91,06 m<sup>2</sup>-tik aurrera. 3 eta 4 logelakoak. Kalitate oneko materialak. Garajea eta trastelekua barne. Estreinatzeko.  
**280.000 €-tik aurrera + BEZ**



**ABADIÑO** 318 m<sup>2</sup>  
**GAZTELUA AUZOA:** Beheko solairua, lehenengo solairua eta solairua estalkipean. Kotxe-tokia, 78 m<sup>2</sup> erabilgarri dituena. 15.317 m<sup>2</sup>-ko partzelan, laua, orientazio onekoa (eguzkitsua eta argitsua) eta bista ederrekoa. Egitura baldintza onetan. Barrualdea berrizatzeko. Ingurune berdea eta lasaia. Abadiñotik 5 minutura eta Durangotik 10 minutura. **BI FAMILIAREN ZAKO AUKERA.**  
**440.000 € C.E.E: Bidean**

## //BERRIAK DURANGO

**EZKURDI:** 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Iggogailua. Ganbara. Berrikuntzak behar ditu. **175.000 € / E.E.Z=E**

## //DURANGO

**ANTSO ESTEGIZ:** 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Trastelekua. Iggogailua. **LEHEN 192.000 € ORAIN 175.000 € / E.E.Z=F**

**ASKATASUN ETORBIDEA:** 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Iggogailua. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 320.000 € ORAIN 298.000 € / E.E.Z=E**

**ASKATASUN ETORBIDEA:** 3 logela, sukaldea eskegitokiagaz, egongela eta 2 komun. Iggogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000€ ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

**BARRENKALEA:** 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Iggogailua. Berrizatzeko. **LEHEN 150.000 € ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**

**BARRENKALEA:** Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

**ERROTARITXUENA:** 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. garajea 2 kotxerentzako. Trastelekua. Iggogailua. **382.000€ / E.E.Z=D**

**JUAN DE OLAZARAN:** 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Iggogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

**KALEBARRIA:** 2 logela, egongela-sukaldea eta komuna. Iggogailua. **195.000 € / E.E.Z=E**

**KOMENTU KALEA:** 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Iggogailua. Ganbara. **187.000 € / E.E.Z=E**

**MONTORRETA KALEA:** 3 solairutako pabilioia 1.309 m<sup>2</sup> inguruko azalerarekin. **728.000 € / E.E.Z= SALBUETSITA.**

**SANTIKURUTZ KALEA:** Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600 m<sup>2</sup>-ko lurzorua. **LEHEN 550.000 € ORAIN 495.000 €**

## //BERRIZ

**MURGOITIO AUZOA:** Berreraikitzeko baserria lurzoruagaz. **LEHEN 280.000 € ORAIN 250.000€**

## //GARAI

**MOMOITIO AUZOA:** Etxebizitza eraikitzeko lursailak. Aukera ezberdinak.

## //IZURTZA

**ELIZALDE AUZOA:** 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **LEHEN 620.000€ ORAIN 570.000€/ E.E.Z=E**

## //OTXANDIO

**ZELAIETA AUZOA:** Baserria. 40.355 m<sup>2</sup>-ko lursaila. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. **LEHEN 348.000€ / ORAIN 280.000€ E.E.Z=G**

## //ZALDIBAR

**BOLATOKI KALEA:** 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Iggogailua. **130.000 € / E.E.Z=G**

## //GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO

Durango eta lurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuarekin.

## Botikak

<b>BARIKUA, 22 · 09:00-09:00</b> ETXEBARRIA, MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA 09:00-22:00 SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	<b>DOMEKA, 24 · 09:00-09:00</b> DE DIEGO, INTXAURRONGO 22. - DURANGO IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA 09:00-22:00 SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA <b>ASTELEHENA, 25 · 09:00-09:00</b> SAGASTIZABAL, ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA 09:00-22:00 SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
<b>ZAPATUA, 23 · 09:00-09:00</b> BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA 09:00-13:30 <b>DE DIEGO, INTXAURRONGO 22. - DURANGO</b> ETXEBARRIA, MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO CAMPILLO, MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO GAZTELUMENDI, J.A. ABASOLO 2 - DURANGO BALENCIAGA, EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO SANTAMARIA, ERREKAKALE 6. - ELORRIO FARMAZIA MATIENA, TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA 09:00-14:00 IRIGOIEN, BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA 09:00-22:00 SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO	<b>MARTITZENA, 26 · 09:00-09:00</b> MUGICA, ANDRA MARIA 9 - DURANGO IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA 09:00-22:00 SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA <b>EGUAZTENA, 27 09:00-09:00</b> BALENCIAGA, EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA 09:00-22:00 SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA <b>EGUENA, 28 · 09:00-09:00</b> NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA 09:00-22:00 SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

## Eskelak



### Jose Luis Zarrabeitia Mondragon "Urtain"

Durangon hil zen, 2024ko martxoaren 17an,  
73 urte zituela.



"Bizi gaien artien, bizi!"  
Agur, Urtain!

Abadiñoko Talde Batuak

## Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEO 14:00AK ARTEKO EPEA

Zorionak  
guztioi!



### GOZATU GOZOTEGIA

Hamabostean behin jasotako  
zorion-agurren artean **tarta bat zotz**  
**egingo dugu.**

Zozketan parte hartzeko bidali  
kontakturako datuak zorion-agurrekin  
batera.

Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
661 40 14 00  
gozatudurango@gmail.com  
Gozatu Gozotegia  
gozatugozotegia



Zorionak, hirukote, familia osoaren partez! Eskerrik asko ematen duzuen poztasunagatik. Asko maite zaituztegu. Muxutxu pila.



Gure etxeko okertxoak 3 urte egingo dauz. Urte askotan jarraitu daizun bazterrak nahasten eta gure egunak alaitzen. Besarkada bat etxekuen partez.



Heldu da zure egune! Asko disfrutau eta ondo zelebrau. 14 urteiek irribarre batekin agurtu. Asko maite zaitugu, oso harro gauz zutaz. Besarkada handi bat eta mosu asko Arrianditik eta Jonen partez.



Martxoaren 10ean 42 urte egin zituen **Jabik**, Eskuko Racing-eko presidentea. Zorionak Reboileda/Morales familiaren partez.

## Eguraldia

ZAPATUA 7° / 14°



ASTELEHENA 6° / 17°



EGUAZTENA 4° / 14°



DOMEKA 5° / 14°



MARTITZENA 5° / 14°



EGUENA 9° / 18°



**UZTAILAK 1-19** ORDUTEGIA  
9:00 - 14:30

HIRI UDALEKUAK EUSKERAZ ETA INGELESEZ  
4-11 URTEKO UMEENTZAT

HAZ-en edota Ibarretxe Kultur Etxean  
Izen ematea - plaza mugatuak  
Apirilaren 10etik 19ra arte  
kultur-etxea@iurreta.eus  
Tel. 94 620 03 42



Pio Pio, eramateko janaria  
Arripuko tortilla aukera ezberdinak  
Kotxeak eta maskotak garbitzeko aukera  
Baserriko ogia (Panarra, Otxandioko baserri ogia)

BI-623, 48213 Izurtza  
BI-623, 48210 Otxandio

# "Josteko makinagaz lotura polita izan dut betidanik"

Arantza Rodriguez atxondarrak irakasleentzako amantalak eta osagarriak egiten ditu orain hiru urtetik hona, Hasi Ta Hazi izenpean. Familiatik datorkio joskintzarako grina



**Arantza Rodriguez Gallego**  
Artisaua  
**ATXONDO | 1991**

**ATXONDO • AITZIBER BASAURI**  
Askotariko oihal koloretsuak daude Arantza Rodriguezek Atxondon duen tailer txikian. Batez ere, irakasleentzako amantalak egiteko. Baina giltzatakakoak, osagarriak eta haur bilduma sortzeko ere bai. Gehienbat Bilboko eta Gasteizko azoketan saltzen duen arren, eskualdeko azoketan ere parte hartzen du (@hasi.ta.hazi).

**Zelan jaio zen Hasi Ta Hazi proiektua?**

Etxean josteko makina izan dugu beti. Joskintzan lan egiten duen laugarren belaunaldia naiz, eta betidanik gustatu zait. Amaren josteko makina nire logelan zegoen eta gogoan dut apur bat josteko eskatzen niola amari nik

lo hartu aurretik. Erlaxatu egiten ninduen. Josteko makinagaz lotura polita izan dut betidanik. Gurasoak aspalditik urrun bizi dira, baina pandemiak Atxondon harrapatu zituen. Bada, elkarregaz etxean emandako ordu haiek guztiak amagaz ikasteko

**Orain produktu eksklusiboagoak egiten ditut, estanpatu propioak sortzen hasi naiz eta**

aprobetxatu nituen. Orduan hasi nintzen josteko makinagaz apur bat jolasean.

**Gizarte langilea zinen eta lan hori utzi egin zenuen proiektu berriari ekiteko. Erabaki gatxa izan zen?**

Ez. Behar nuen aldaketa egitea, bihotzetik irten zitzaidan. Banekien hauxe zela nire bidea. Josteko makinaren aurrean jesarritakoan, beste sentsazio batzuk nituen eta ehuneko ehunean joskintzan jardutea erabaki nuen.

**Irakasleentzako amantalak egiten dituzu batez ere.**

Bai, lan horregaitik ezagutzen naute gehien. Inguruan hainbat irakasle dut eta kasualitatez hasi nintzen amantalak egiten. Diseinu berriak sortzen hasi nintzen, desberdinak, eta arrakasta handia izan zuten azoketan. Hezkuntza arlo horregaz lotuta,

estutxeak, giltzatakakoak, askarirako zakutoak, umeen amantalak... ere sortzen ditut. Horiez gain, haur bilduma ere badut. Gainera, orain produktu eksklusiboagoak egiten ditut, estanpatu propioak sortzen hasi naiz eta.

**Hori da zabaldu duzun bide berria?**

Bai, apurka-apurka diseinu eksklusiboekin produktu berriak sortzea da batez ere nire asmoa hemendik aurrera, osagarriak sortzea. Irudia modu digitalean sortzen dut, eta inprimatzera bidaltzen dut gero. Oihalak heltzen direnean josi egiten ditut. Iazko udan pisti-poltsak eta nezeserrak egiten hasi nintzen.

**Horretan lan egin gura duzu, batez ere?**

Nire merkatua irakasle amantalak dira, irakaskuntza mundua. Horixe da gehien saltzen dudana

**Proiektuaren hasiera naiz, eta ama, amama eta birramama hazia izan dira honetan hasteko. Hortik dator izena; arbasoei egindako omenaldia da**

produktua, eta horregaz jarraituko dut. Premien arabera, geroago eta aukera gehiago eskaini gura dut. Diseinu berriak eskaintzen hasi naiz (mauka luzekoak, ikasle edo haur amantalak...). Baina ilusioa egiten dit neure estanpatu propioak sortzea, bereizteko modu bat da.

**Zelan definituko zenuke Hasi Ta Hazi? Nora heldu gura zenuke?**

Proiektuaren hasiera naiz, eta ama, amama eta birramama hazia izan dira honetan hasteko. Hortik dator izena; arbasoei egindako omenaldia da. Irakasleen munduan Euskal Herriko erreferenteetarikoa bat izatea dut helburu eta desio.

**Eskuz egindako lanak dira. Horrek balio erantsia du.**

Bai, jakina. Eta etika handiagoga sortuak dira. Gainera, uste dut Euskal Herrian asko baloratzen dela artisau lana.

## Lau hortza

Bixente Aizpurua Eguren  
Irakaslea



## Traktorradak

Nekazari eta abeltzainen pazientzia agortu da. Urteak eta urteak igaro dituzte lanean etekin txiki baten truke, baina hori bukatu da. Lehen sektoreko askok giltza eman diote beraien lanbideari jubilatuko edo nekatu direlako. Atzetik datozenek egoerari buelta eman nahi diote lurrak emandakoari esker bizi nahi dutelako eta tinko heldu diete beraien aldarrikapenei. Horretarako, traktoreekin bazter guztiak bete dituzte euren hitza entzun dadin.

Ez dute diru laguntzarik eskatzen, egiten duten lana egoki eta zuzen ordaintzea da eskatzen dutena.

Egin beharreko tramiteak sinplifikatu, arindu eta erraztu.


Lur gehiago, ustiapenak errentagarriak izan daitezkeen.

Eta beste abar luze bat.



Horren aurrean politikariak entzungor azaltzen dira eta kontrako erabakiak hartzen dituzte, behar beharrezkoa duten lurra zementu bihurtuz.

Elorrion PNVk eta EH Bilduk bat egin dute Pulla-Azkarreta, balio agrologiko handiko lurzorua, makro-industrialdea aurrera eramateko. Non geratzen da PNV, EH Bildu, PSEk Eusko Parlamentuak onartutako Aldaketa Klimatikoaren legea?

Elorrion zertarako behar dugu beste industrialde bat, 16 hektarea inguru erabilerarik gabe eta kutsatutako industria-lurra daudenean? Hektarea horiek deskutsatu ondoren erabiliz gero nahiko eta sobera izango litzateke baserriarrei lur emankorrik kendu gabe, baina, dirudienez horretaz ez dira ohartu ez EH Bildu ezta EAJ ere.



## SAN ROKE BARRIA



### 2. fasea salgai

2 logela, **garajea barne**  
**235.000 €** <sup>-TIK</sup> <sub>+BEZ</sub>

3 logela, **garajea barne**  
**295.000 €** <sup>-TIK</sup> <sub>+BEZ</sub>

Erreserbatu hitzordua hemen:  
[www.sukia.com](http://www.sukia.com)

**SALMENTA BULEGOA**  
Astxiki Kalea, 1. Durango

**946 462 041**

**sukia**  
Zure etxean zaude Estás en tu casa